

uk

237. zenbakia / 2013ko uztailearen 22a



# URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki  
**Urte osoan** Uribe Kostan gertatzen denaren barri  
**Urte osoan** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
**Urte osoan** argazki zahar eta barriak  
**Urte osoan** zure proiektuak lau haizetara  
**Urtean 20 euro**




Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.


www.ukaldizkaria.biz    neuk ere gura dot    UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte  
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga  
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
 KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lopoan Euskara Elkarte  
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

	
	
	
	
	
	
Bizkaiko Foru Aklundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Barraskilo-taldea Erandion.
6. FACEGUK. Hondartzak eta ingurua gehiegi zikintzen ditugu?
7. LEHEN ETA ORAIN. Sarri (Getxo), 90eko hamarkada.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Lehsan Liman Sabuu.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Kultur arteko II. Martxa.
28. ARGAZKIA. Marmitakoa Portu Zaharrean.
30. BERBETAN. Iñigo Muguruza Ugarte.
34. FOTOGRAFIA. Hondartza-sasoia.
40. SAKONEAN. Ikerketa eta Garapena Erandion.

### KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Basartena film laburren jaialdia.
43. MUSIKA. Getxo Folk jaialdia.
44. LIBURUAK. Euskarazko komiki-lehiaketa.
45. KIROLAK. Ricardo Otxoa-Getxoko txirridularitza zirkuitua.
46. ELKARRIZKETA. Jose Uriarte.
47. JENTILKOBA. Galtzagorriak.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Patea, ahuntz-gazta eta urdaiazpikoa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxoko paella-lehiaketa, 1979.
54. AITORMENAK. Estepan Aldamiz-Etxebarria.

Azala: Getxoko Udal Liburutegia


[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)




30 Iñigo Muguruza Ugarte

### Berbetan

Iñigo Muguruzagaz egitasmo barriaz, aurreko garai eta taldeez, etorkizuneko aukerez eta abarrez jardun dugu.



11 Lehsan Liman Sabuu



46 Jose Uriarte

www.renault.es / 902 333 500

## RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

RENAULT QUALITY MADE    WORLD CHAMPION ENGINE    Renault gorenaren zifra

DRIVE THE CHANGE    RENAULT

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.billoberri.com  
**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**     20 euro     30 euro     50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digitu)**  
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

**Leihatila**

&gt; Arrate Illaro

**Txibatoak**

Uda betean gaudela, gure herriko haur eta gazteak udalekuetan daude egunotan. Batzuk egunean zehar baino ez dira egongo, baina beste askok eguneko hogeita lau orduak igaro(ko) dituzte, 7-10 egunez, elkarbizitzan. Begirale aritzen naizen guztietan ohartzen naiz: gaztetxoak etxean dagoenaren ispilu dira.

Inoiz ikusi gabe ere, azkar ezagut ditzakegu gurasoak. Haurrari esnea gustatu ez eta “gure semeak alergia dio esnari” ohar batean idazten dutenak, umeak astebetetz udalekuetan utzi eta oporretan joaten direnak, edo seme- alabei erratza eskuetan inoiz jartzen ez dietenak. Bai, berehala ikusten da zein umek laguntzen duen etxeko lanetan. Hala ere, lasai, mahaia nork jasotzen duen eta hortzak zeinek garbitzen dituen ere agerian geratzen da.

Gurasook, ez naiz ni hasiko gomendioak ematen, zuek baino askoz gutxiago dakit-eta haurrak zaintzeari buruz. Baina ez izan zalantzarik: zuen seme- alabak egiten duzenaren isla dira, txibato hutsak.

**Iritzia**

**Sopelako alkate (Bildu) Saioa Villanueva Zarandonak karguan daraman bi urteotako ibilaldiaren gaineko gogoeta egiten du hurrengo lerroetan:**

# Herri olatua indartsuago eginez

**Urte bi** pasatu dira jada, Sopelan alkatetza lortu genuenetik. 2011ko udaberrian, haiteskundearen atarian, Euskal Herriak aspalditik bizi duen egoeraren aurpegi biak zeuden agerian. Batetik, ordura arteko aurpegi beltzaren jarraipena izan zitekeen Bilduren ilegalizazioa, eta bestetik, hainbat eta hainbat herritar aldaketarako aukera zekarren argia.

**“...egiteko beste modu bat dago, eta praktikan jartzen ari gara”**

Ni bezalako hainbat hautetsi ilusioz beterik abiatu ginen. Politikagintzan esperientzia eskasa genuen. Baina intenziarik garenen eta auzotarrek eta lagunek bultzatzen gintuzten aldaketa plazaratzera eta errealitate bihurtzera. Umeek lehen korrikaldia hasten dutenean bezala, aurrera egiten genuen inozentziaz, alaitasunez, maitasunez eta lan egiteko gogoz.

Ez zen denbora larregi pasatu “aldaketa” hitzak sortzen dituen erresistentzietan topo egiteko, politikagintzaren gordintasunarekin, alegia. Pentsamendu blindatuei loturiko indar eta sinismen arriskutsuak izan ditugu aurrez aurre. “*Hau beti honela egin izan da*”. Baina mugitzen ez dena atzera doa eta gu, batzuetan arin, bestetan astiroago, bidea egiten joan gara. Momentuak eskatzen duenari erantzun nahian, eta aldaketa bera ortzimugan galdu gabe, hori baita iraunkorra den bakarra. Gauzak egiteko beste modu bat dago eta praktikan jartzen ari gara.

Izandako abiadura handiko tren honetako esperientzietatik ateratako ondorioak honakoak dira: batetik, politikagintzaren eboluzioa eta herritarren beharren arteko sintonia parekatu behar direla, eta bestetik, aurrerapauso sendoak emateko alderdikeriaren eta gizartearen delegazioaren gainetik dagoen herria eraikitzea ezinbestekoa dugula. Baina hori abiadura handiko tren honek duen martxan ateratako ondorio iragankorra besterik ez da.

Eskerrak, Sopelaldetik, kontrako korrontea zer den badakigun eta honen aurrean orain arte itxita egon diren bideak zabaltzen goazen, herri olatua pixkanaka indartsuagoa eginez. Eskerrak, nire egunik grisenak uxatuz, Korrikak ekarri zuen euskal mareari; Sopelako jai batzordeari, herriko kaleak koloretsu bihurtzeagatik; egunez egun beste hainbat ekimen aurrera ateratzen dituzuen lagun eta elkartei.

Batez ere, eskerrak, norberaren ideietan oinarrituta herri bat, mundu bat aldatzea bilatzen duenari, baina batik bat zorionak honen guztiaren bitartez bere burua aldatzeari ekiten dionari.

**Saioa Villanueva Zarandona**  
(Sopelako alkatea)

**UK-ko lan-taldea**

**gu geu****Irailera arte!**

Geuri ere heldu zaigu mailetak egiteko ordua... Baina bulegoko ateak itxi baino lehen, planak egiteko aukerez eta albistez lepo doakizue zenbaki hau. Uztail akabuko, abuztuko eta irail hasierako kontu horiek danak patxadaz eta ganoraz irakurtzeko bitarte polita duzue...

Baten batek pentsatuko du “*hauek bai hauek! uztailetik iraila arteko oporrak?!! Ze ondo bizi diren!!! Eta gero beti negarrez dabilta...*” Ostera, ezagutzen gaituenak ondo daki hori ez dela egia; uztail ia amaiera arte lanean egongo gara, eta iraileko lehenengo haizeagaz bueltatuko gara, zuek opor osteko UK irail erdialdean jasoko baduzue ere... Eta negar egitearena... Egin behar denean barruak husteko egiten dugu, beroaldien ondorio izaten da batzuetan, beharrak eraginda besteetan... Baina, behin esan genuen legez, irribarra ez dugu inoiz galtzen, ezta galduko ere! Horren erakusle dira hamabostero-hamabostero kaleratzen dugun aldizkari hau eta etorkizunean eskaini gura dizuegun barrikuntzaz beteriko UK. Horretan gabilta...

Bitartean, gozatu irribarreez, mosuez, besarkadez, digestioez, lo-kuluxkez, bainuez, bisitez, bidaiez, irakurraldiez... On egin eta zoriontsu izan!



ERFANDIO, 2013KO UZTAILA

**Taldean...** / Horrela ibiltzen gara udan, jendetza elkartzen gara jairik jai eta ekitaldiz ekitaldi, izerdiak lotuta moduan. Badirudi barraskilo hauek ere beroak elkartu dituela, udaro legez: hesien zutoinetik gora igotzen dira eta bertan pilatu, estu-estu, euria noiz jauziko; udako berezko irudia gure soloetan. Taldeka elkartzea gustuko dugu, “sozializatzea”. Gero, uda joan negua etorri, etxeko epeltasunera itzultzen gara. Baina, barraskiloek eskola moduan, norberaren gauzak lepoan hartu eta aldean eroan beharko ditu batek baino gehiagok, nora itzuli ez-eta... ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Hondartzak eta ingurua gehiegi zinkintzen ditugu?



Sopela

**Junkal Solis**

> pentsioduna

Jendearen arabera, batzuek asko zikintzen dute; beste batzuk, barriz, garbiagoak dira. Askotan hondartzaren erdialdean gazteak jarri ohi dira, eta askotan haiek izaten dira zaborra, hondakin guztiak bertan uzten dituztenak. Hala ere, denetarik dago, baina oro har, nahiko zikinak gara.



Sopela

**Mariano Pastor**

> pentsioduna

Nire ustez, sarritan harea hautsontzi handia izaten da. Askotan ikusi dut jendea haretan zulo handi bat egiten, ondoren banana azala, adibidez, sartzeko. Horregatik, pentsatzen dut edukiontzi gehiago jarri beharko lituzketela hondartzan, horrela, jendeak ez lituzke gauzak haretara botako.



Urduiz

**Clara Isabel Landeta**

> dendaria

Udan ekimen gehiago egoten dira; ekimen horiek gehienak gazteentzat izaten dira. Eta gazteek askotan kale-zurru-ta egin ohi dute, eta hori egin ostean oso zikin uzten dute dena. Hondartzan ere gauza bera gertatzen da eta jendeak hondakin guztiak bertan uzten ditu.



Sopela

**Andrea Lopez**

> ikaslea

Nik uste dut zikinak garela, Sopelako hondartzan zabor asko egoten da. Gainera, nik lagun bat daukat bertan lan egiten duena zabor-biltzaile, eta beti, egunero, zabor asko biltzen du. Beraz, arazo horri irtenbidea emoteko, uste dut beste batzuetan bezala, udalek hautsontziak eman beharko lituzketela.



Sopela

**Iban Arranz**

> irakaslea

Gu koadrilan hondartzara joaten garenean zaborrontzira botatzen ditugu gauzak; izan ere, beti izaten ditugu ondoan edukiontziak, eta ez da ezer kostatzen. Baina badira beste koadrila batzuk gauzak uzten dituztenak hondaretan. Hala ere, Sopelako hondartzan zaborrontzi nahiko daude gauzak hara botatzeko.



Sopela

**Susana Aurrekoetxea**

> langabea

Sopelako hondartza nahiko garbia da; edukiontzi asko daukagu eta garbitzaileak hondartza garbi mantentzen saiatzen dira. Beste gauza bat da itsasgorak dakarren zikinzeria, baina horren aurrean ezin dezakegu ezer egin, hondartza, oro har, garbi dago. Gainera, jendeak gero eta kontzientzia handiagoa dauka.



[lehen]



[orain]

## Iraganez doa denbora\* beti / SARRI (GETXO), 90EKO HAMARKADA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; egun ustela



Algorta, 2011ko uztaila

Testua: **Josu Arroyo Izkoa** / Argazkia: **Asier Mentxaka**\* Doinua: *Sentimendua sartu zitzaidan*

Bukarestetik etorri ginen, sei laguneko sendia: Simon senarra, lau seme-alaba, seigarrena ni, Lydia. Pasa ditugu, etxerik etxe, Getxo, Berango, Plentzia... Nora ezean gabiltza eta galtzear dut pazientzia. Ez dut egin nahi espalo baten nire bizitza guztia...

Andre zahar horri egin diot gaur azken erruki eskea. Bere lurrinak erosi berri helburua du betea. Hiru orduan bi euro eskas... gaurko balantze triste! Nahiz eta gure ohitura ez den horren arin etsitzea, kantoi honenak egin du eta hobe dut alde egitea.

Ordu dezente pasa ditut gaur, ia gehienak alferrik. Inork ez dauka hil amaieran niretzat txakur txikirik. Familia bat daukat etxean; denak nire zain, goserik. Egun ustela izanagatik, badut buruan ametsik: kartoi gainean hegan eginez irten nahi nuke hemendik.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)Info: [www.getxophoto.com/eu](http://www.getxophoto.com/eu)

## argazki-jaialdia &gt; getxophoto irailan

'Ametsak' da aurtengo Getxophoto nazioarteko argazki-jaialdiko gai nagusia. Irailan egingo den ekinemak, aretoetan eta, batik bat, espazio irekietan ametsen gaineko makina bat argazki-bilduma ikusteko aukera eskainiko du. Christian Caujolle da 2013 honetako Getxophotoko komisario barria, antolatzaileek azaldu dutenez "Michel Foucault, Pierre Bourdeau eta Roland Barthes-en ikasle-lagun-

tzailea izan zen, Liberation-eko editore grafikoa eta VU' agentziaren sortzailea, Les Rencontres d'Arles jaialdiko zuzendari artistikoa eta PhotoEspaña edo Rotterdam Foto Biennaleko komisario ere bai... Gaur egun, Kanbodiako Photo Phnom Penh jaialdiko zuzendaria da, eta aurrerantzean Getxophotoko komisarioa izango da hiru urtez". Egitarau, jarduera eta gainerakoen barri webgunean izango duzue laster. ○

## diru-bilketa &gt; bigarren eskuko liburu azoka

**Getxoko** Bigarren Eskuko Liburu Azokan 17.000 liburu saldu ziren, eta 14.545 euro batu zituzten udal liburutegiek. Pasa den hil amaieran egin zen azoka eta salgai ipinitako liburuak norbanakoek liburutegiei emandakoak eta liburutegiek beraiek zituztenak izan ziren. Liburu gehienak euro batean saldu ziren, eta entziklopedia bildumak eta antzeko obrak prezio berezian zeuden. Hala, bigarren eskuko liburuak saltzetik bildutako dirua, ohi den legez, elkartasun-egitasmoren batera bideratu dute antolatzaileek, gobenuz kanpoko erakunde baten bitartez. Horrenbestez, aurten "Kongoko Errepublikak Demokratikoko Kansenian hezkuntza eta trebakuntzako proiektua garatzeko" zuzenduko da batutako diru-kopurua, eta San Martin de Tours Misio-taldea elkarrekin izango horren arduradun. ○



14.545 euro batu dituzte

## bilketa &gt; Plentziako argazki zaharrak

**Europako** Ondarearen Jardunaldiak antolatzen dabilta Plentziako Udala eta Turismo Bulegoa. Urrian egingo diren jardunaldion barruan, argazki zaharren erakusketa egiteko asmoa dute eta horretarako Plentziako argazki zaharrak batzen dabilta. Leon Armando Zalbidea zuzendari plentziarraren *Plentzia 1927* pelikularen errekonstruzio-lana egin du Kandelaria Elkarteak, eta horregaz batera eskaintzeko

egin gura dute erakusketa: "helburua, gure uriko antzinako argazkiak berreskuratzea da 1920. urtetik abiatuz (...) Ekarri zuen argazkiak, eskaneatu eta astebetean itzuliko dizkizuegu". Hala, "Plentzia 1920. urtetik aurrera" erakusketarako argazkiak turismo bulegora edo kultur etxera eroan beharko dira irailaren 5a baino lehenago. ○

Info: 94 677 41 99 / 94 677 55 41 [turismo.plentzia@bizkaia.org](mailto:turismo.plentzia@bizkaia.org)

Argazkiak jasotzeko azken eguna: irailaren 5a



## Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm  
6 eredu ezberdin  
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

# 19,90 €

BEZ BARNE



global printers  
applications + business

Villa de Plentzia, 6  
GETXO  
Gobela metro  
geltokiaren ondoan

## saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa





...harria
...lehengo garaiak...
...itsasoa

[www.saiaszgetaria.com](http://www.saiaszgetaria.com) / [info@saiaszgetaria.com](mailto:info@saiaszgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

# Zabaldu euskararen atea



**Hauxe da aurreztu dezakezuna** zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

**%50** gehienez 360 euro, euskaraz hutsez jartzen baduzu. **%30** gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehentasuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo seietan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

**%10** eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu. **%5** ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

HIZKUNTZA AHOIKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

**94 415 22 52**  
gehi@getxo.net

## TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 23. 94 491 54 32

## RÓTULOS PUBLIARTE

Bidebarri 19. 635 752 373

## CIANOPLAN

Plentzia hiria kalea 6- Calle Villa de Plentzia 6. 94 464 85 72

## ULI ARTE PERSIANAS Y TOLDOS

Andres Cortina 14. 94 403 55 90

## LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 491 13 95

## KALKO

Aingeruaren etorb. 4 B - Av. del Ángel 4 B. 94 491 29 83

## KISER

Kale Nagusia 16- Mayor 16. 94 464 73 37

## AMETS

Tellebxe 13. 94 460 10 31

## RÓTULOS ARRILUCE

Arriluze kaia z/g- Muelle de Arriluze s/n. 94 491 08 83

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11

euskara.zerbitzua@getxo.net

www.getxo.net/euskara

DESKONTU GEHIGARRIA



[erretratua]

"Hemendik gehien gustatzen zaidana: bizikleta, Nocilla, txakurrak eta 'Alerta Cobra' telesaila"

## Lehsan Liman Sabuu > Saharatik Euskal Herrira, lehen aldiz

**Mesfidati** ageri da Lehsan Liman Sabuu argazkian. Ia-ia behartuta jarri da argazkilaria aurrean. Hasieran serio, begirada sarkorragaz eta lotsatuta... baina itxurakeria hutsa da, ezin dio irribarreari eutsi. Izan ere, ume guztiak bezala, Lehsan ere ipurtarina da, bihurria (argazkia egin bitartean etxe bateko txirrina jo du, barre-algaraka) eta alaitasun kutsagarria du. Haatik, Lehsanek badu bitxitasun bat: argazkian Algortako Portu Zaharrean agertzen bada ere, Saharako errefuxiatu kanpamenduetan jaio da. Sei urteko ume hau lehen aldiz urten da bere etxetik, Euskal Herrira: "Osasun Batzordeagaz etorri da, ebakuntza egin behar diotelako, osasun arazoak direla eta". Berba horiek Mariana eta "Faneka"-renak dira. Hile bi pasako dituzte umeagaz. Eta noski, kultura aldaketa nabarmena da: "Kontu handiz ibili behar dugu leihoakaz, kanpamenduetan altuerarik ez dagoenez, ez dago ohituta, eta jaus dateke". Eta gauza bera itsasoagaz, eskailekarak... Inguru barri eta arrotza Lehsanentzat, alde on eta txarrakaz. Berarentzat, honakoak dira inguru barri honetan ezagutu dituen gauzarik onenak: "Bizikleta, Nocilla, txakurrak eta 'Alerta Cobra' telesaila". Itsasoa eta olatuak ere txundituta lotzen da. Hori bai, dan-dana ez da Lehsanen gustukoa. Horretan ere, seguruenik, bat egiten du munduko gainontzeko umeakaz: "Txarrena... dutxa!". Argazkia: Asier Mentxaka / Testua: Julen Nafarrate

# Saninazioek hasiko dute uda

Algortako *saninazioak* hasiko da herriko jaien udako maratoia Getxon: **uztailaren 27tik 31ra ospatuko** dira eta **aurten Murrizketa Eguna** ere izango dute



Martitzena izango da egun handia: San Inazio Eguna

Egun gitxi barru hasiko dira San Inazio jaiak Algortan. **Uztailaren 27an, zapatuan, abiatuko dituzte eta 31ra arte luzatuko dira, San Inazio egunera arte, hain zuzen.**

**Bost egunez** gozatuko dute auzoko jaiak algortarrek eta, ohi legez, egitaraua ekitaldiz lepo dator. Goizero egongo dira umeentzako jarduerak Telletxe kalean edo Biotz Alai plazetan eta sardina-janak auzoko hainbat txokotan.

Gauetan suzko zezenak bazterrak nahastuko ditu han-hemen eta txosnetan egunero egongo dira herri-bazkariak. Musika eta bertsolaritzari tarte zabala eskainiko diete egunero, hainbat plazatako tauletan. Nagusientzako ekimenik ere ez da faltako eta ohiko futbito txapelketa ere egin-

go da Batzokiko patioan. Eta, zelan ez, koadrilen arteko lehiaketako probetan ederto pasako dute algortarrek.

Aurten egun berezia astelehena izango da, izan ere, udalak emandako laguntzaren murrizketak egitarauan eragingo

**«Uztailaren 29a Murrizketa Eguna izango da eta bakarrik egingo dira diru-kosturik ez dakarten ekitaldiak.»**

duela jakinarazi du Jai Batzordeak: *«Zenbait gastu gure gain hartu behar izan dugunez, egun horretan gasturik ez dakarten ekintzak bakarrik antolatuko ditugu»*. Gaineratu dutenez, txosnak egun osoan zabalduko dituzte eta Jai Batzordeak bere materiala herritarren eskura jarriko ei du. ○

## Ekitaldi batzuk

### • Uztailak 27, zapatua:

- Pregoia eta txupina (Telletxe, 18:00)
- Estropadak: Getxoko Ikurriña (18:00)
- Koadrila-jaitsiera (San Nikolas, 19:00)
- Kontzertuak (San Nikolas, 20:00)
- Jota txapelketa (Biotz Alai, 20:30)
- Kontzertuak: Hamaiketan + Erasoka + Escuela de Odio (Telletxe, 19:30)
- Kontzertuak: Kuenta Atras + Dientes de Luna (Kasino, 22:00)
- Umeentzako zinema (Zabala, 22:00)

### • Uztailak 28, domeka:

- Umeentzako jarduerak (Telletxe, 11:00)
- Bertsolariak (Kasino, 13:00)
- Txipiroti txapelketa (Biotz Alai, 13:30)
- Gazte bazkaria (Txosnak, 15:00)
- Buruhandiak (herrian zehar, 18:00)
- Trikitilariak (San Nikolas, 18:30)
- Umeentzako dantzaldia (Kasino, 19:30)
- Kontzertuak: Ertz + The Riff Truckers + Porko Bravo (Telletxe, 22:00)
- Erromeria (Kasinoa, 23:00)

### • Uztailak 29, astelehena:

- Tortilla txapelketa (Txosnak, 12:00)
- Koadrilen playbacka (Telletxe, 17:30)
- Kantu-poteoa (Katea, 19:00)
- Sardina-jana (Teilagorri, 19:30)
- Musika: Mapatxes (San Nikolas, 20:00)
- Trio Calavera (Teilagorri, 20:30)
- Animazioa (Txosnak, 21:00)

### • Uztailak 30, martitzena:

- Goitibeherak (11:30)
- Bertsolariak (Kasino, 13:00)
- Jaitsiera (Cuatro caminos, 19:00)
- DJ Ras Sabino (San Nikolas, 22:00)
- Karibeko dantzak (Teilagorri, 20:30)
- Jai kubatarra (Lainoa taberna, 21:00)
- King Burning & Nebula Selektah + Las Tea Party DJ's (Telletxe, 22:00)

### • Uztailak 31, eguztana; San Inazio:

- Ricardo Ochoa memoriale (09:30)
- Euskal dantzak (Telletxe, 12:30)
- Bertsolariak (Kasino, 13:00)
- Orga-joko txapelketa (Bihotz Alai, 19:00)
- Nagusien dantzaldia (Zabala, 19:30)
- Futbito txapelketa (Batzokia, 20:00)
- Erromeria (Telletxe, 22:00)

**Romon abuztua hasi orduko** > indartsu!

Uztailaren 30etik **abuztuaren 4ra** aspertzeko tarterik ez!



Koadrilen arteko probek giroa piztuko dute, ohi legez

**Uztailak berea egin** baino lehen hasiko dira jaiak Romon, Algortakoak bat; uztailaren 30etik abuztuaren 4ra ospatuko dira, martitzenetik domekara. Gainera, auzoko danak dabilta prestaketan parte hartzen, hainbat ekimen antolatuz.

Txikienetik hasita eta nagusietara, danontzako ekitaldiak egongo dira jaietan. Berbarako, goizero zabalduko dute Txikigunea Santa Eugenia plazan eta koadrilen probak prestatu dituzte umeentzat; Nagusien Etxeak ere lehiaketak eta dantzaldiak antolatu ditu. Tabernariak, gainera, buru-belarri dabilta ekitaldiak eta

kontzertuak prestatzen: giro itzela egongo da edonon. Gainera, auzoko artisten lanak erakutsiko dituzte Santa Eugenia.

**«Ska-Reggae jaialdia abuztuaren 3an izango da, zapatuan, 21:30etik aurrera»**

Eta, zelan ez, zapatuan, hilaren 3an, Ska-Reggae jaialdi ospetsua izango da 21:30etik aurrera, txosnetan: Skatis (Euskal Herria), Soweto (Katalunia), Sound-system Thunderclap (Euskal Herria), BB Seaton (Jamaika) eta Dennis Alcapone (Jamaika) taldeek joko dute. ○

## Ekitaldi batzuk

### • Uztailak 30, martitzena:

- Aurre-txupinazioa (Cervantes, 12:00)
- Sukaldaritza lehiaketa (Cervantes, 12:30)
- Goitibeheren kalejira (txosnak, 19:30)
- Erromeria: Garilak 26 (Dolores Ibarri plaza, 23:30)

### • Uztailak 31, eguztana:

- Herri-bazkaria (Ibaiondo kalea, 14:30)
- Plater irekia (Dolores Ibarri, 14:30)
- Garagardo jaia (Cervantes, 19:00)
- Txupina (Sta. Eugenia, 19:30)
- Film laburrak (Dolores Ibarri, 22:00)
- Zinema umeentzat (Cervantes, 22:00)
- Las Fellini (Ganeta, 23:00)
- DJ Bull (Txosnak, 23:00)

### • Abuztuak 1, eguna:

- Erraldoiak eta buruhandiak (elizan hasita, 18:00)
- Herri Krosa (Ganeta, 19:30)
- Bertso Saioa (Txosnak, 20:30)
- Kontzertuak hainbat tabernatan (20:00etik aurrera)
- Kontzertuak: herriko taldea + Riot Propaganda (Txosnak, 22:30)
- Kontzertua (Ganeta, 23:30)

### • Abuztuak 2, barikua:

- Marrakzi lehiaketa (Ibaiondo, 13:30)
- Txixarilloa (Ganeta, 18:30)
- Kontzertuak hainbat tabernatan (20:30etik aurrera)
- Playbacka (Dolores Ibarri, 22:00)
- Kontzertua: herriko taldea + Ze Esatek (Txosnak, 23:00)

### • Abuztuak 3, zapatua:

- Putxera lehiaketa (Ganeta, 12:00)
- Bertso-jira (Txosnetatik, 19:00)
- Ska-Reggae Jaialdia (Txosnak, 21:30)
- Tekno-gaua (Dolores Ibarri, 21:30)
- DJ Kurloi (Ganeta, 23:00)

### • Abuztuak 4, domeka:

- Batukada (08:00)
- Nekazaritza azoka (Ibaiondo, 10:30)
- Tortilla-lehiaketa (Artatza, 12:00)
- Bilbainadak (Txosnak, 18:00)



**%50 arteko  
Beherapenak**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

**Ukan musika taldea** > Portu Zaharreko jaietan joko dute, abuztuaren 11n

“Jai giroa eskainiko dugu eta, era berean, entzuleak pentsatzera bultzatu nahi ditugu”



Portu Zaharrean ere grabatu zuten bideoklipa: *Beste behin*

Sara (abeslaria), Gorkita (gitarra eta ahotsak), Sergio (tronboia), Lander (tronpetea), Raul (saxofoia), Iskander (bateria) eta Karrasek (baxua) osatzen dute Ukan taldea. Uribe Kostan jaiotzen 2012ko urrian, Getxoko Txorimalo gaztetxeko jaialdi batean: hortik izena. Lagun batzuk elkartu eta trago artean otu zitzairen talde bat egitea, baita burutu ere. Taldea guztiz osatzeko, ordea, haize-tresnak gehitu dituzte aurtengo apirilean: Ezkerraldeko lagunak. Koartadak maketa kaleratu barri, Portu Zaharreko jaietan aurkeztuko dute, abuztuaren 11n, domekan.

—Gazteak zarete, bai zuok, bai taldea bera, zelan sortu zen Ukan?

—2012ko urrian hasi ginen proiektuarekin Karras, Gorkita, Sara eta Iskander. Trago artean otu zitzaigun talde bat sortzeko ideia eta 2013ko apirilean haize-tresnak sartu ziren, taldea osatzera.

—Zein musika estilo egiten duzue eta zeintzuk dira zuen erreferentiek?

—Gure musika estiloa punk-rock melodikoa da, haize eta ska doinuekin nahastuta. Egia esan, ez dugu erreferentzia berezirik izan, taldekide asko izanik zaila

baita denen arteko estilo bakarra lortzea. Dena den, bakoitzak bere izaera islatzen du, taldeari nortasuna emanez. Euskal Herriko rocka entzutera ohituta gaude eta horrek hornitu gaitu musikari bezala.

—Letrei dagokienez, zer gai jorrazten duzue eta zergatik?

—Gehienbat letra aldarrikatzaileak ditugu, egunerokotasunean sumatzen ditugun arazo politikoak, sozialak... salatzen, beti sentimenduei lekua gordez.

—Zergatik musika kontuetan sartu?

—Ez gara orain hasiak, aspaldi gabiltza

musikaren munduan, adibidez: haizeak *Guretzat* eta *Txulalai* fanfarreekin ari dira lehenagotik. Iskander *Libertad condicional* eta *Astintzen* taldeetan ibili izan da. Eta Gorka, Iskanderrekin batera, aurretik aipatutako bi taldeetan, eta *Zzio* hip-hop

### «Datorren udarako diskoa grabatu eta kaleratzeko asmoa daukagu»

taldeko partaide da; gainera, Karrasek Algortako *Olokausto* taldean jo du eta gaur egun *Kuenta atras* taldean ere badabil. Azkenik, Sara mundu honetan barria da, baina ez da antzematen, alaitasuna eta trebetasuna agerian daude taulara igotakoan.

—Proiekturen bat daukazue esku artean: maketa, diskoa...?

—Maketa plazaratu berri dugu eta, gainera, Koartadak ekoizleari esker lehen bideoklipa grabatu dugu Algortako Portu Zaharrean (interneten ikusgai, *Beste behin* izenagaz). Datorren udara begira, abestiak konposatu, diskoa grabatu eta kaleratzeko asmoa daukagu.

—Zelan hartu zaituztete entzuleek?

—Hasi barriak gara, ilusio eta gogo handiarekin, eta egia esan, eskertzekoa da entzuleen erantzun eta harrera. Oraingoz ez daukagu kontzertu asko lotuta, baina hurbilen daukagunetako bat da abuztuaren 11, domeka: Algortako Portu Zaharreko jaietan izango gara, beraz, jendea anima eta etor dadila gu entzutera!

—Zer eskainiko diezue?

—Bereziki jai giroa, dantza eta momentu ona pasatzea, baina aldi berean, gure hitzetan pentsatzera bultzatu nahi ditugu: gure inguruan benetan garrantzia daukaten arazoen jakitun izateko, askotan ez baikara benetako errealitatearen jabe. ○

**Portu Zaharrean** > jai-maratoia aurrera doa!

Algortako jai kutunak abuztuaren 9tik 13ra, parrandan jarrai dezagun!



Umeentzako kukaña jaietako zapatuan egingo da, 18:30ean

**Uda bete-betan** harrapatuko dituzte algortarrak Portu Zaharreko jaiak, urtero legez. Saninazioak, Romoko jaiak... asteburuz asteburu, eten barik helduko dira portuko jai handiak: abuztuaren 9tik 13ra ospatuko dira, barikutik martitzenera.

Koadrilen jaitsieragaz hasiko da festa barikuan, arrastiko 18:00etan: Kasinotik urtengo dira porturako bidean eta kalejiraren buruan Txo eroango du iazko koadrila irabazleak: Egurre erreten. Koadrila horrek berak irakurriko du pregoia 19:30ean plazan eta, handik aurrera, jaiak etenik ez

martitzenera arte, goizeko 06:00etan Txo erre arte. Izan ere, marmitako lehiaketa eta Pijama edo Arrantzale Eguna astelehenean egokitu dira aurten. Bitartean ondo pasa-

### «Martitzen goizaldean erreko dute Txo kaian, Pijama Egunaren ostean»

tzeko aukera asko egongo da, ondoko taulan ikus daitekeenez. Umeentzako parkea egunero egongo da taula atzean, goiz eta arrastiz. Gozatu jaiak! ○

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke

## Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 9, barikua:**
  - Txupina (12:00)
  - Umeen jaitsiera (Kasinoa, 12:15)
  - Umeentzako diskoteka (portuko plaza, 13:00)
  - Koadrilen jaitsiera (Kasinotik, 18:00)
  - Sardina-jana (plaza, 19:30)
  - Pregoiaren irakurketa (19:30)
  - Zinema umeentzat (Doc. Pedro Bilbao plaza, hilak 9-12; 21:30)
  - Kontzertua: Sysmo + J.A.N. + Hij@s de tu Iglesia (21:30)
  - Suzko zezena (22:30)
- **Abuztuak 10, zapatua:**
  - Umeentzako jarduerak (plaza, 11:00)
  - Kukaña (hondartza, 11:30)
  - Buruhandiak (16:30)
  - Beteranoen estropada (18:00)
  - Umeen kukaña (18:30)
  - Umeentzako ur-jokoak (hondartza, 19:00)
  - Itsasoaren aldeko brindisa (20:00)
  - Koadrilen playbacka eta DJ Ruben Rubio (taula, 22:00)
- **Abuztuak 11, domeka:**
  - Koadrilen txalupa lasterketa (10:00)
  - Buruhandiak (11:30)
  - Itxas Argia dantza taldea (aparkalekua, 13:00)
  - Igel-toka eta tiragoma txapelketak (plaza, 13:00)
  - Altxaldiak (19:00)
  - Sardina-jana (plaza, 19:30)
  - Kontzertua: Guda Dantza + Sobieth + Ukan + Patxuko Nice (taula, 21:30)
- **Abuztuak 12, astelehena:**
  - Marmitako lehiaketa (09:30-14:00)
  - Haurren arrantza txapelketa (10:30)
  - Bertsolariak (plaza, 18:00)
  - Marmitako lehiaketaren sari-banaketa (plaza, 18:30)
  - Koadrila lehiaketaren sari-banaketa (plaza, 21:00)
  - Dantzaldia: Akerbeltz (taula, 21:30)
- **Abuztuak 13, martitzena:**
  - Txo erre eta jai amaiera (kaia, 06:00)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
gusanalibreria@gmail.com

**Peru Calabaza Saban** > Solasguneko komunikazio arduraduna eta hezitzailea

## “Belaunaldien arteko elkar-trukaketak oso aberasgarriak dira ikaste-prozesuan”


**Solasgune ekimenak Laboragunea sortu zuen orain dela urtebete, jolas eta ikasketarako gunea. Edonork har dezake parte eta udako oporraldiaren ostean zabalduko dute barriro. Hainbat gunetan banatuta dago espazioa eta heziketa sortzailearen baloreetan oinarritzen dira.**

—Zer da Leioako Laboragunea eta zer lantzen da bertan?

—Hazteko eta jolasteko baldintzak eskaintzen ditu espazio honek. Normalean, ikasketa bizitzaren epe batera mugatzen da, eta modu eta toki zehatzean egiten da. Guk beti pentsatu dugu ikasketa prozesua gertatzeko hobe dela beste baldintza batzuk egotea. Eskola-sistema sortu zen beharrian jakinei erantzuteko, eta modu berean funtzionatzen jarraitzen du, baina egun bestelako beharrian batzuk daude.

—Heziketa sortzailea da zuen oinarria?

—Uste dugu ikasteko baldintzarik onenak direla programarik eta epaiketarik bakoak, norberaren grinaren arabera, eta lau espazio dauzkagu. Goizetan, ikasi eta jolasteko gunea: adin guztietako pertsonak elkartzen dira. Arrastietan, heziketa sortzailean oinarritutako tailerrak egiten ditugu. Bestalde, ikastaro edota hitzaldiak



Iturriondo kaleko 10.ean dago Laboragunea

antolatzen dira eta, azkenik, familiek proposatutako planak egiteko espazioa ere eskaini gura du Laboraguneak.

—Talde heterogeneoak dira, zergatik?

—Heterogeneoak eta anitzak dira, belaunaldien arteko hartu-emona egon dadin. Heziketa sortzaileko talde batentzat garrantzitsua da heterogeneoa izatea, horrek bermatzen duelako alderaketarik eta epairik ez egotea parte-hartzaileen artean. Goizeko espazioa ez da horren itxia, baina

pertsonen arteko harremana ere sortzen da, elkarrengandik ikasiz: belaunaldien arteko elkar-trukatzeak oso aberasgarriak dira ikaste-prozesuan. Jendartearen segmentazio horren aurkakoa da gurea, plaza bat egon behar delako danok alkartzeko. Bestalde, Solasgunekook urteak daroaguz Herrigune hezkuntza komunitate proiektuan lanean, eta asmoa da harremana bul-tzatzea herritarraz eta elkarteakaz: herritarraz elkarlanean aritzea. ○

## Berdintasun arloko tailerrak

Emakume eta gizonek **izena emon dezakete “erantzukidetasun” ikastaroetan**



Info+: 94 480 13 36 (Gizarte Zerbitzuak)

**Datorren ikasturteko “erantzukidetasun eta autonomia”** tailerretan parte hartzeko izena emon daiteke abuztuaren 31 arte, Gizarte Zerbitzuetan (Inaurratzaga 1). Irailtik abendura izango dira, batzuk gizonentzat, besteak emakumeentzat; 16 laguneko taldeetan egingo dira eta 10 euro ordaindu behar dira.

Emakumeek hiru arlo landuko dituzte: igeltserotza, elektrizitatea eta brikolajea. Astelehen, eguazten eta eguenetan egingo dira, 18:00etatik 20:30era, eta bakoitzak 30 ordu iraungo du. Horrela, igeltserotza ikastaroa irailaren 16tik urriaren 10era garatuko da; elektrizitateari buruzkoa, urriaren 14tik azaroaren 7ra eta brikolajeari buruzkoa, azkenik, azaroaren

11tik 5era. Beraz, ikus daitekeenez, dantetan parte hartzeko aukera dago, bateragarriak dira.

Bestalde, gizonen zuzendutako ikastaroak ondokoak dira: etxearen garbiketa eta antolaketa, lisaketa eta josketa, eta sukaldaritza. Astelehen eta eguaztenetan egingo dira, 18:00etatik 20:30era. Dataz data, etxearen garbiketa eta antolaketari buruzko ikastaroa irailaren 16tik urriaren 7ra garatuko da eta 17 ordu eta erdi iraungo du; lisaketa eta josketari buruzkoa, barriz, urriaren 9tik 30era egingo da, eta aurrekoaren ordu kopuru bera izango du; azkenik, sukaldaritzari buruzkoak 30 ordu iraungo du eta azaroaren 4tik abenduaren 5era egingo da. ○

## LEIOA JAIRIK JAI, PINUETATIK ONDIZERA

Auzoetako jaiak bustiko dute uda Leioan, urtero legez, eta badago aste akabu askotarako plana: Pinuetan hil akabuan izango dira jaiak, uztailearen 30etik abuztuaren 4ra; Santimamin, abuztuaren 17 eta 18an; San Bartolomen, abuztuaren 23tik 25era. Baina ez horiek bakarrik, ikasturte barria iritsi arren jaiak ez baita etengo: Udondon irailaren 10, 13 eta 14an ospatuko dituzte, eta Ondizen irailaren 6tik 8ra, lehen aste akabuan; gainera, azken horietan, Bakailau txapelketa egingo dute irailaren 15ean.

## ARGAZKI ETA FILM LABURREN LEHIAKETAK

Abiatu dituzte XX. Film Laburren eta XXVII. Argazkien Lehiaketak, eta lanak aurkeztu behar dira urriaren 11 eta 18rako, hurrenez hurren. Film laburretan maila bi dago: euskaraz eta gaztelaniaz. Irabazleentzako sari bana egongo da, 1.000 eurokoa; bigarren saria, barriz, orokorra izango da, 700 eurokoa. Gainera, herriko egilerik onenari 400 euro emongo dizkiote. Bestalde, argazki lehiaketan hainbat kategoria bereiztu eta bost sari emongo dituzte: zuri-beltzeko eta koloreko argazkirik onenei (kategoria bakoitzeko sari bana) 400 euro emongo diete, hiru argazkiko multzorik onenari ere 400 euro, sakelakoaz egindako argazkirik onenari 300 euro eta herriko egilerik onenari 200 euro.

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## MERKATARITZA AZTERTZEKO INKESTA

Leioako “hiriguneko merkataritza aztertze” inkesta egingo du Behargintzak eta herritarren parte-hartzea eskatu du. PERCO proiektuaren barruan kokatzen da ekimena, “hiriguneko merkataritza sustatzeko plana diseinatzea” helburu, “aleak dinamizatzeko eta aktibatze asmoz”. Internet bitartez edo edozein udal-bulegotan erantzun daitezke galderak.

Info+: [www.leioa.eu](http://www.leioa.eu)

### MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaileak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81


Bidezabal Kalea 9  
48993 GETXO



BIZKAIA IRRATIA **Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**

[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Alex de Benito** > Unbreath musika taldeko gitarra

“Pasarte melodikoak eta muturreko *dead metala* nahasten ditugu: goxoa eta basatia lotuta”

**Leioako Pop-Rock Lehiaketa irabazi du Unbreath taldeak, Metal kategorian. Lau lagunek osatzen dute: Aitor Garciak (baxua), Javilok (bateria), Alex de Benitok (gitarra) eta Sophie “Neska rdkore” (ahotsa); azken biak erandioztarrak dira.**

—Dead metal melodikoa egiten duzue, zeintzuk ezaugarri dauzka?

—Metal oso azkarra eta oso teknikoa da, eta bateria oso bizkortua danbor bikoitzagaz: *blast beat* teknika erabiltzen du. Gitarra tonu oso baxuan afinatuta dago eta pasarte oso azkarrak egiten ditu; horrelakoa da gure oinarri instrumentala. Ahots erregistroi dagokienez, bi erabiltzen ditugu: garbia eta ezarririkoa.

—Zortzi hilabete besterik ez alkarregaz eta daborduko diskoa kaleratu eta lehiaketa bat irabazi duzue...

—Bateria-jotzailea eta biok betidanik jo dugu taldeetan, baxua ere talde batzuetan egon da, baina abeslariaren lehen proiektua da. Ikusleak harritzen dira emakume batek abestu eta erregistro horretan kantatzeko gai delako. Oso pozik gaude; gainera, finalisten artean aukeratu gaituzte Madrilgo Granito Rock lehiaketan ere, nahiko garrantzitsua dena. Bilboko Aste Nagusian ere joko dugu, herriko musika



Bigarren diskorako kanta konposatzen hasiko dira uda ostean

taldeen kontzertuan. Eta Leioan irabazitako diruagaz bideoklipa grabatuko dugu.

—Eta diskoaz zer esan dezakezu?

—Diskoa, *My faith against me*, martxoan kaleratu genuen; esan daiteke diskoa taldea baino lehen sortu zela. 12 abesti, ingelesez; guk ekoiztu dugu nire estudioan grabatuz eta nahastuz. Pasarte melodikoak josita dago, muturreko *dead metala* gaza nahastuta: metalaren parterik goxoa eta basatiena alkarregaz lotuta. Entzuleek ondo hartu dute eta kritika oso onak izan

ditugu. Urtarrilean debutatu eta 30 kontzertu dauzkagu lotuta. Hurrengo diskoetxea lortzea da, gure musika promoziona dezan; izan ere, lehen diskoagaz eta kontzertuakaz lanpetuta ibili gara, denborarik ez dugu izan horri ekiteko. Uda baliatu gura dugu lan horretarako eta, ostean, bigarren diskorako kanta sortzen hasi.

—Eta osasuntsu dago metala gurean?

—Beno, egun Espainian gainbehera dago, baina Euskadin jendeak babesten du eta nahiko ondo dago. ◊

## Jairik jai eta auzoz auzo

San Lorentzotik **San Agustinera**, ibilbide luzea daukate aurretik **Erandioko** jaiak



Marmitako txapelketa egingo dute abuztuaren 10ean, San Lorentzo egunez

**Auzoz auzo** eta eten barik, Erandio jaietan murgilduta dabil eta egutegia bete-beteta dator. Abuztuaren 7tik 11ra San Lorentzo jaiak ospatuko dituzte astrabuduarrek, Santimami auzoak abuztuaren 17an eta 18an ospatuko ditu eta Altzagak abuztu akabuan, 28tik irailaren 1era; San Agustin jaiak dira horiek.

Auzo danetan prestatu dute ekitaldi mordoak, berbarako, eskubiko zutabeak dauzkazu Astrabuduan antolatu dituzten batzuk. Baina goazen aurrera, izan ere, Santimami auzoaren txanda izango da horien ostean eta prestatu dute, besteak beste: luntxa, txinbera txapelketa, idi-pro-

bak, jolasak, dantzaldia, herri-bazkaria, pailazoen ikuskizuna eta txokolate-jana.

Eta oraindino gehiagorako indarra daukazu? Bada, Sanagustinak hilabete berru ospatuko dira Altzagan eta, askoren oporraldia agurtzeko, hona hemen hainbat ekitaldi: jolasak, suzko zezena, gala-afaria eta herri-bazkaria, larrain dantza, estropadak, erraldoiak eta kilikiak, bertso-saioa, dantza erakustaldia, idi-probak, e.a. Txapelketa asko ere egongo da, berabarako tortilla, putxera edota aureskuena; eta musikari eretarte egingo diote: euskal kantak, bilbainadak, dantzaldiak edota Emon taldearen kontzertua. ◊

## Sanlorentzoak Astrabuduan

### • Abuztuak 7, eguaztena:

- Txikitxupina (11:30)
- Koadrilen jaitsiera (19:00)
- Pregoa eta txupina (20:30)
- Larrain dantza (20:45)
- Txitxarrilloa (22:00)
- DJ Mangas (23:00)
- Kontzertua (23:00)

### • Abuztuak 8, eguna:

- Txikilekua (egunero; 11:00)
- Tortilla lehiaketa (11:00)
- Gynkana eta herri-kirolak (16:00)
- San Lorentzo txapelketa: finala (20:00)
- Poker txapelketa (20:00)
- Suzko zezena (22:00)
- Karaokea (23:00)
- Dantzaldia: Garilak 26 taldea (23:00)

### • Abuztuak 9, barikua:

- Bitsa-jaiak (13:00)
- Tute txapelketa (16:00)
- Kale-ikuskizuna (18:30)
- Bilbainadak (20:30)
- Playback (22:30)
- Dantzaldia: Kresala (00:30)
- Karaokea (13:00)

### • Abuztuak 10, zapatua:

- Arrantza txapelketa (09:00)
- Marmitako txapelketa (10:00)
- Olgetan jolas (11:00)
- Udal Musika Banda (13:00)
- Idi-probak (18:00)
- Dantza erakustaldia (19:00)
- Txitxarrilloa (22:00)
- Kontzertua + dantzaldia (00:00)

### • Abuztuak 11, domeka:

- Paella txapelketa (11:00)
- Gaiteroen kalejira (11:00)
- Bitsa-jaiak (13:00)
- Udal Musika Banda (13:00)
- Umeentzako gynkana (16:00)
- Koadrilen eronka (19:00)
- Igel-toka txapelketa (19:00)
- Umore bakarriketa (21:30)
- Ulpiatori agurra (00:00)



Luberrri Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
luberrri@euskalnet.net  
www.luberrri.biz

#### - Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

#### - Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

#### - Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

#### - Barrukaldeak lorategi bihurtzea



# zure publizitatea hemen !

publiuk@aldizkaria.biz · Tf. 944911337 www.aldizkaria.biz/publizitatea

## UZTAILAREN 28AN, NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Uztailaren akabuan Nazioarteko Folklore Jaialdia helduko da Sopelara, eta sopeloztarrek hamaika ekimenegaz gozatzeko aukera izango dute. Hala, uztailaren 28an Larra-basterrako Urgitxieta plazan, Galdakaoko Andra Mari dantza taldeko dantzariak arituko dira, 20:30ean. Galdakoztarrez gain, Afrikatik ere, Swazilandiako Pelepele Folklore taldea ailegatuko da, bertako dantzakaz goza dezagun. Bestalde, Hegoameriketatik Kubako Camagua Folklore taldea helduko da. Beraz, hilaren 28an munduko txoko ezberdinetatik etorritako dantza zein musikagaz gozatzeko beta izango dute sopeloztarrek, baita bertaraten diren guztiek ere.

## BILBOKO ETA SOPELAKO TURISMO BULEGOEN ARTEKO HITZARMENA

Bilboko eta Sopelako Turismo bulegoek akordioa sinatu dute hondartzen erabilera sustatzeko asmoz. Horrela, hitzarmenaren bitartez, hondartzetatik Bilborako gertutasuna bilatu gura izan da; hori lortzeko, BilbaoCard-ean Sopelbuserako doako bidai bat gehitzea erabaki dute. Beraz, udako denboraldi osoan BilbaoCard txartela erosten dutenek Sopelbusean doako joan-etorri batez gozatu dute. Elkarlan horren bitartez, Bilboko bisitariak herriko hondartzen edertasuna eta hurbiltasuna erakustea lortu gura dute.

## HURRENGO IKASTURTEAN IKASTETXEETAN SURF IKASTAROAK

Datorren ikasturtean Sopelako ikastetxeek surf ikastaroak egiteko aukera izango dute. Sopelako Udalak eta Peña Txuriko Surf eskolak sinatu dute hitzarmena, eta hurrengo urtean surfa eskola curriculumean barneratuko dute. Horrela, surfa gertutik ezagutuko dute.

## Sopelan, LOMCEri ez Sopelako Udalak LOMCEren aurkako adierazpena onartu du ekaineko udalbatzan




Alderdi guztiek, PPK izan ezik, bat egin dute legearen aurka

Joan den hileko udalbatzan Sopelako Udalak adierazpena adostu zuen, Espainiako Gobernuak bultzatutako Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE gaztelarazko laburduran) aurka; gehiengo osoaren babesagaz onartu zuten: 16 bozka alde (Bilduren zapiak; EAJ-PNVren zazpiak eta PSE-EEren biak) eta PPren bozka bakarra kontra. Adierazpenak euskal hezkuntza komunitateak onartutako hezkuntza sistema propioaren eraikuntza aldarrikatzen du, eta eredu horri esker lortutakoak hainbat direla adierazten du,

besteak beste: *“euskal hezkuntza ereduari esker, ikasle euskaldun eleanitzak sortu ditugu, geure eskola-curriculum baten baitan; bestalde, parte-hartze eta autonomian oinarritutako eredu sortu dugu”*. Horrez gainera, Sopelako Udalak legea erabat errefusatzen du *“LOMCE hezkuntza urraketa garbia izango delako; irakasleak eta bekak murriztuko dituelako eta lege birzentralizatzailea izango delako”*. Bukartzeko, Udalak dei egin die hezkuntza komunitate zein herritarrei Wert legearekiko desadostasuna adierazteko eta eredu propioa eraikitzeko. ○

## Airetik Parapente Elkarteak > zeruan zehar

“Hegalariak gara, eta inauteriak ere hegan ospatzen ditugu”



Info+: [www.sopelanaparapente.com](http://www.sopelanaparapente.com)

**Aurten**, Airezko Inauterien XV. edizioa ospatuko du Airetik Parapente Elkarteak; izan ere, daborduko 15 urte daromatxate Uribe Kostako inauteri bereziak antolatzen. UK-k inauterien inguruan galdetu dio Alfonso Angulo Airetikeko kideari, gehiago jakiteko.

—**Zer dira Airezko inauteriak?**

—Bada, Airetik elkarteak antolatzen dituen Airezko Inauteriak ezberdinak dira, gu hegalariak gara, eta euren bitartez bestelako inauteriak sortzen saiatzen gara. Azken finean, moztortzen gara, baina hegan egiten. Hala, parapentearen jai bat da, beste herrialdeetan ere ospatzen dena, eta horretan gure parapenteak ere moztortzen ditugu. Normalean Airezko Inauteriak iraileko lehenengo asteburuam ospatzen ditugu. Hori bai, eguraldiak ez badu batera laguntzen, beste asteburu baterako utzi ohi dugu; izan ere, jarduera hau egoera meteorologikoaren menpe dago. Baina normalean data

horietan egiten dugu.

—**Nork har dezake parte?**

—Parte-hartzea libre da. Egindako edizioetan jende askok parte hartu du, 25-30 hegalari inguruk, moztortuta. Parte-hartzaileak parapente-zaleak dira. Bete behar dituzten baldintzak hauek dira: federatuta egotea, parapentea izatea eta moztortuta etortzea. Gainera, gero eta jende gehiago animatzen da hegan egitera, gero eta zale gehiago daude, eta jardura probatzen dutenak ere gehiago dira.

**«Azken urteetan, gero eta parapente-zale gehiago dago gurean»**

—Inauteriaz gain, bestelako jarduerarik antolatzen du Airetik Elkarteak?

—Guk, Airetik Elkarteak kideok, aukera emoten diogu jendea parapentea ezagutzeko, berbarako: bi laguntzako parapente bidaiak egiteko aukera eskaintzen ditugu, udaberria eta uda bitartean. ○

**Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!**  
Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak  
*gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!*  
Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## DIDAK hAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleanitzasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

## Santa Ana

- **Uztailak 26, barikua:**
  - Meza (Santa Anako eliza, 12:00)
  - Nagusientzako hamaiketako
  - Simon Otxandategi Dantza Taldearen emanaldia (13:00)
  - Sardina-jana eta JAMMU (21:00)
  - Erromeria. Drindots Taldea (23:00)
- **Uztailak 27, zapatua:**
  - Txirindularitza lasterketa (12:00, Sabino Arana)
  - Haur-tailerrak (12:30-14:30)
  - Euskadiko Sokatira txapelketa (17:00)
  - Haur berbena: Lumagorri (19:00)
  - Txotxongiloak (Antzokia, 20:00)
  - Erromeria (23:00)
- **Uztaila 28, domeka:**
  - Tailerrak eta haur-jolasak (12:00-14:00)
  - Zaldi-probak (18:00)
  - "Nulot" Magia ikuskizuna (19:00)
  - Mariatxiak (21:00)

## Santo Domingo

- **Abuztuak 2, barikua:**
  - Haur-ikuskizuna (19:00)
  - Bertsolariak: Xabi Paya, Onintza Enbeita, Itxaso Paia (20:30)
  - Erromeria: Egan taldea (22:00)
- **Abuztuak 3, zapatua:**
  - Haur-parkea (12:30-14:30 / 17:30-20:30)
  - Pilota partiduak (frontoia, 19:30)
  - Dantzaldia: Simon Otxandategi (20:00)
  - Erromeria: Orots taldea (23:00)
- **Abuztuak 4, domeka:**
  - Meza (12:00)
  - Nagusientzako hamaiketako eta dantzak (13:00)
  - Idi-probak (19:00)
  - Pintxo-banaketa (20:00)
  - Erromeria (20:30)
- **Abuztuak 4, domeka:**
  - Gazte-parkea (11:00-15:00)
  - Bitsa-festa (13:00)
  - Gorritiren animalien ikuskizuna (18:00)
  - Disco-festa (20:00)
  - Jaien amaiera. Suzko Zezena (22:00)

## Berangon jairik jai

### Santa Ana eta Santo Domingo jaiak uztail akabuan eta abuztu hasieran helduko dira



Hainbat dira Udalak antolatutako ekimenak

**Berangoztarrek** datozen egunotan jai egarrria asetzeko aukera izango dute; lehenengo eta behin, Santa Anako jaiakaz, eta ostean Santo Domingokoakaz. Hala, uztailaren 26an hasiera emongo diete Santa Anako jaiak; egun horretan, besteak beste, sardina-jana izango da eta JAMMU talde senegaldarraren ikuskizuna. Zapatuan, hilak 27, arrastiko 17:00etan Euskadiko Txapelketako sokatira emanaldia izango da; ondoren, haurrentzako berbena Lumagorri taldeagaz, eta 23:00etan barriro ere erromeria, baina oraingoan guztientzat, Sorgiñe tal-

deagaz. Akabuko egunean, hilaren 28an, arrastiko 18:00etan zaldi-probak izango dira eta iluntzean txokolate-jana eta trikitixa. Eta jaiak agur esateko, 21:00etan mariatxiak egongo dira.

Abuztuaren 2an, barriz, Santo Domingo jaiak hasiera emoteko bertso-saioa egongo da 20:30ean, eta 22:00etan erromeria Egan taldeagaz. Zapatuan, abuztuaren 3an, 23:00etan Orots taldearen erromeria egongo da. Domekan, abuztuak 4, idi-probak eta bilbainada-kantaldia 19:00etan. Hortxe, beraz, aukera ugari Berangon ondo pasatzeko! ○

## Plentzia eta Gorlizko gaztetxea > ametsak egia bihurtuz

### "Gure asmoa da presioaren bidez gaztetxeak aurrera egitea"



Une honetan sinadura-bilketa egiten dabilta gaztetxearen alde

**Urtarrilean** Plentziako eta Gorlizko gazteek hondartza aurrean zegoen eraikin hutsa okupatzea erabaki zuten; zazpi hileotan hamaika dira bertan egindakoak. Eurakaz egon gara gehiago jakiteko.

—**Zer behar ikusi zenuten okupatzeko?**  
—Aurreko gaztetxearen desalojoaren ostean eta Udalarekin hainbatetan berba egin ostean, konturatu ginen lokal hau hutsik zegoela eta urtarrilean okupatzea erabaki genuen. Izan ere, jakin izan genuen enpresa pribatu batek espazio hau kudeatuko zuela.

—**Zazpi hil hauetan hamaika ekimen...**  
—Gitarra ikastaro kooperatiboa egiten dugu, denon artean jotzen ikasten dugu. Horrez gainera, hainbat dira egindako hitzaldiak; gai sozioekonomikoei zein gai internazionalistei buruzko hitzaldiak. Bestalde, haurrentzako ekimen ugari: zinema, kreatibitate tailerra, antzezlanak, berbalagun taldea ere osatuko dugu. Bariku kulturalak ere egiten ditugu: antzerkiak, kontzertuak noizbait...

—**Zein egoeratan dago gaztetxea?**  
—Bada espazioa okupatu genuenean Udalak bide judiziala ireki zuen, horrek ibilbide luzerik ez, eta bide administratiboa irekitzea erabaki zuen; horren bitartez kanporatzea lortzen dute beti. Beraz,

### «Zazpi hiletan eskaintza zabala: ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak e.a.»

ez badugu hitzarmenik lortzen edo presioaren bidez eragiten, gaztetxeak bide administratiboa bukatu arte iraungo du. Beti saiatu gara herriko agintariakaz berba egiten, baina eskaintzen digutena espazioaren zati bat da, betiere, enpresa pribatuagaz partekatuta eta horrek espazioa kudeatuta, eta hori guk gura dugun herri-ereduaren aurka dago.

—**Aurrerantzean zer?**  
—Sinadura-bilketa egiten gabiltza, elkarretaratzea egingo dugu... Asmoa presioa areagotzea da, uste dugu Udala presionatuta jarraitzea lortuko dugula. Herritar askoren babesa nabaritu dugu. ○

# Aurten ere euskarari heldu!

- **Maila guztiak ordutegi desberdinetan**
- **Ikastaro trinkoak larunbatetan**

HABEk diruz lagunduta



Algortako Etorbidea 104 48991 (Algorta - GETXO)  
Tf. 94 460 66 71

e-mail: [j.a.agirre@euskalnet.net](mailto:j.a.agirre@euskalnet.net)



### Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: [bilbao@limpiezasvillar.com](mailto:bilbao@limpiezasvillar.com)



## AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86



## Urdulizko Jaiak

- **Irailak 6, barikua:**
  - Txupin jaurtiketa (19:00)
  - Kale antzerkia (Lehendakari Agirre plaza, 20:30)
  - Kontzertuak Urban eta Aizu taldeak (Landa, 23:00)
- **Irailak 7, zapatua:**
  - Haurrentzako herri kirolak (11:00)
  - Bitsa-jaia (13:00)
  - Goitibehera jaitziera ( Santa Mariñeko malda, 16:00)
  - Mozorro lehiaketa ( Lehendakari Agirre plaza, 20:00)
- **Irailak 8, domeka:**
  - Fanfarria herria alaitzera (10:00)
  - XXVII Andra Mari Txirimindularirza Sari Nagusia (10:30)
  - Asto lasterketa (Landa, 17:00)
  - Suziriak (22:30)
- **Irailak 13, barikua:**
  - VI. Skate Xpression (Skate pista, 18:00)
  - Goma pelota pala partidua (19:30)
  - Bertso-saioa (Kultur Etxean, 21:00)
- **Irailak 14, zapatua:**
  - Iratxo Gorria dantza taldearen emanaldia (11:30)
  - Herri bazkaria (Iparralde kiroldegia, 14:30)
  - VI. Kotxeetako Urdulizko Slalom-a (futbol zelai zaharreko aparkalekua, 17:00)
- **Irailak 15, domeka:**
  - Mus txapelketa (16:00)
  - Areto-dantzak (Iparralde kiroldegia, 18:00)

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Plentzia

**Irailan, Plentziaren txanda: sanantolinak** gogoz gozatzera



Jaiak abuztuaren 30etik irailaren 3ra izango dira

**Uda** amaitzeko denbora luze falta bada ere, oraingoan udako azken hilera egin behar dugu jauzi; izan ere, Plentziako *sanantolin*etako egitaraua dakarkizuegu. Hasteko, Antolintxuren eta Madalantxuren egunaren barri emongo dizuegu: abuztuaren 24an eguerdiko 13:00etan, 2013ko Madalantxu eta Antolintxuren aurkezpena egingo da herrian. Halere, hileko 30era arte ez diete jaiari hasiera emongo; hala, egun horretan, besteak beste, harrera egingo diete Antolintxu eta Madalantxuri 17:00etan. Ondoren, 18:00etan kalejira egingo da, Andra Mariraino. Iluntzeko 20:00etan umeentzako erromeria eta gaueko 23:00etan suzko zezena egingo dira. Hilaren 31n barriz, goizeko 10:00etan marmitako lehiaketa egingo da. 11:00etan Itsas Eder taldekoen dantzek eguna alaitzen jarraituko dute. 20:00etan Plentzia Kantariren kalejira izango da Eleiz enparantzarraino. Ostean, gauerdian, 00:00etan,

Dj-a egongo da Astilleroan. Irailari hasiera emoteko, lehen egunean, 10:00etatik 20:00etara Plentzia Telebistak 25. urteurrena ospatuko du; horretarako, Astilleroan kokatutako estudio mugikorrera joateko gonbidapena egin die herritarrei. Gainera, 10:00etan nekazal eta abeltzain

**“Irailaren 2an, 10:00etatik 20:00etara Plentzia Telebistak 25. urteurrena ospatuko du”**

azoka egongo da bertan. Gauean, Zimmerband eta Rotabator taldeek joko dute, 23:00etatik aurrera. Egun nagusian, irailaren 2an, 14:00etan San Antolin eguneko koktelak izango dira, gero 20:00etan txarri errea egongo da plazan, eta gauean, Gaujaia Boston-Jai musika taldeagaz. Irailaren 3an, azkenik, jaiari agur esango diete; horrenbestez, Antolintxu eta Madalantxuren agurra gaueko 21:00etan izango da. o

# Uzt. 22 - Ira. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

**GETXO**  
**Getxophoto argazki jaialdia.** Abuztuaren 29tik irailaren 29ra. Herriko hainbat gunetan.

**GORLIZ**  
**Gonzalo Gutierrez Gomezen artelanak.** Uztailearen 30era arte. Erakustaretoan.  
**Pintura Lehiaketako lanak.** Uztailearen 31tik abuztuaren 8ra. Erakustaretoan.

**PLENTZIA**  
**Mugimendu feministaren ibilbidea kartelen bidez.** Irailaren 2tik 12ra. Goñi Portalen.  
**Ibilgailu klasikoak.** Irailak 15, 10:00etatik 15:00etara. Astilleron.

## ZINEMA

**BARRIKA**  
**El vuelo.** Uztaileak 26, 22:00etan. Pilotalekuan.  
**El alucinante mundo de Norman.** Abuztuak 2, 22:00etan. Pilotalekuan.  
**Los miserables.** Abuztuak 9, 22:00etan. Pilotalekuan.

**SOPELA**  
**Basalagunak.** Abuztuak 10, 22:00etan. Urgitxieta plazan.  
**Men in black 3.** Abuztuak 31, 22:00etan. Urgitxieta plazan.

## MUSIKA

**SOPELA**  
**Musika zikloa.** Uztailearen 22tik 26ra, 20:00etan. Kurtzion.  
**Folklore Jaialdia.** Uztaileak 28, 20:30ean. Urgitxieta plazan.



50 erakusmahaitik gora ipiniko dituzte, urtero legez

**Azoka**

### San Lorentzo eguneko azoka Getxon

Baserriko produktuak ekoizleari zuzenean erosteko aukera egongo da San Lorentzo egunean Algortan, nekazaritza azokan: barazkiak, eztria, gazta, okela etab. San Nikolas eta Biotz Alai plazetan ipiniko dituzte postuak, 50etik gora, goizeko 10:00etatik aurrera. Produkturik onenak eskuratzeaz gainera, horiek dastatzeko aukera ere egongo da, berbarako: taloa txorizoagaz, sagardoa eta bestelakoak. Ohi legez, goizean hainbat txapelketa ere egingo dituzte produkturik onenak saritzeko. Eguna ederto amaitzeko, barriz, ezin hutsik egin Biotz Alai abesbatzak: kontzertua 22:00etan hasiko da eta doakoa izango da; izen bereko plazak hartuko ditu kantariak.

• **Non:** San Nikolas eta Biotz Alai plazetan • **Noiz:** Abuztuaren 10ean

**ERANDIO**  
**City limits.** Uztaileak 26, 21:00etan. Altagako ontzirelekuan. Dohainik.

**GORLIZ**  
**Travellin' Brothers eta Doctor Flash Back.** Uztaileak 30, 22:00etan. Eliz plazan.  
**Bilbao Orkestra Sinfonikoa.** Abuztuak 9, 20:30ean. Andra Mari elizan.  
**Khantoria.** Abuztuak 10, 20:00etan. Andra Mari elizan.

**GETXO**  
**Nazioarteko Folk jaialdia.** Irailaren 5etik 8ra. Areetako Geltokia plazan eta aparkalekuan.

**PLENTZIA**  
**Vocalia taldea.** Irailak 7, 21:00etan. Elizan.  
**Maite Maruri.** Irailak 11, 20:00etan. Elizan.  
**Euskal kantu liriko barriak.** Irailak 12, 20:00etan. Elizan.

## ANTZERKIA

**GETXO**  
**Ipuin-kontaketak.** Uztailean eta abuztuan, auzoz auzo, udako liburutegietan.  
**Reziklonk.** Abuztuak 30, 13:00etan. Areetako Geltokia plazan.  
**Binefarreko titiriteroak.** Irailak 7, 12:30ean. Areetako Geltokia plazako aparkalekuan.

**BERANGO**  
**Kikka txotxongilo taldea.** Uztaileak 27, 20:00etan. Berango Antzokian.

**ERANDIO**  
**Marvel, los vengadores.** Abuztuak 22, 22:00etan. Erandiogokoako Euskadi plazan.

## BESTEAK

**LEMOIZ**  
**Patinajea.** Uztailean eta abuztuan, astelehenetik barikura. Armintza eta Urizarreko pilotalekuan.

**BARRIKA**  
**Txangoa Gesaltza eta Valdegoviara.** Uztaileak 25.

**GORLIZ**  
**Pintura lehiaketa.** Uztaileak 31.

**PLENTZIA**  
**Hitzaldia: Euskal Herriko feminismoa (Estibaliz Anitua).** Irailak 5, 19:30ean. Goñi Portalen.

**SOPELA**  
**Euskal jaia eta Nekazal azoka.** Irailak 7 eta 8. Udaletxe plazan.  
**Sopela munduan, mundua Sopelan, herrien kultura eta dinouen jaialdia.** Irailaren 13tik 15era. Udaletxe plazan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Ikusi, mendizaleak!

Batzuk sandalia edo takoiakaz, besteak katxabagaz eta zororen bat mendiko botakaz... baina denak iritsi ziren helmugara! II. Martxa Interkulturala antolatu zuen Lagun Artean elkarteak uztailaren 7an, Urkiolara; gure argazkilariak gertutik jarraitu zituen mendizaleak. Jatorri eta kultura askotariko pertsonak batzea zen asmoa, eta euskal kultura ezagutzera emotea. Eta pausoz pauso lortzen dabiltza!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Marmitakoa

Algortako Portu Zaharrea

Sasoian sasoikoa, horixe esaten da. Beraz, Portu Zaharreko jaietako irudi bat ekarri dugu zenbaki honetara, laster ospatuko dira-eta. Bertakoentzat jaietako egunik garrantzitsuenak izaten da marmitako-txapelketarena, edo danek ezagutzen duten moduan: Pijama Egunarena. Baina pijamarik ez daroate aldean argazkiko lagunak, arrantzale arropa baino: pijamaren ohitura nahiko barria denaren seinale. Orduan, noiz hasi ziren pijama jantzen? Diotenez, behin, bertako lagun bat gaupasa egin, lokartu, eta egun hartako hitzordura berandu heldu zen; zelan, eta pijaman! Orduetik ohitura bihurtu da horrela jantzita joatea jaietako azken egunean. Istorioak istorio, ziur marmitako ederra prestatuko dutela aurten ere! On egin, ondo pasa eta ez pasa!

MIREN LARREAK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

Ekain amaieran Algortako Eztabaida-Gunean kontzertua eskaini zuen Lurra taldeak. Ane Garciak (ahotsa), Iñigo Muguruzak (gitarra), Carlos Zubikoak (baxua) eta Ander Larrañagak (darbuka, kaxa) osatzen dute Irun aldeko taldea. Izen bereko bost kantuko disko laburrean, modu akustikoan, blues eta reggae estiloko eskaintzari Afrikako eta Brasilgo doinuak lotzen zaizkio, eta letrak, Muguruzatarren gazteenaren ohiko tankeran, kritikoak bezain konprometituak dira: ama lurraren eta bestelako jendarte baten defentsan eta sistema sozioekonomiko suntsitzaile, arrazista eta baztertzailera salatzen dutenak. Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Sagarroi eta orain Lurrako Iñigo Muguruzagaz (Irun, 1964) berba egin dugu.

# Iñigo Muguruza

## Musika, aita; musika!!

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Urte batzuk emon dituzu oholza gaitetik urruntxo, itzultzea ere zalantzan... Zer dela eta?

—Aitatasuna. Sagarroiren azkeneko garaian izan nuen lehenengo alaba, gero bigarrena... Esan nuen: “ez naiz iristen; gauza bat ondo egiten dut ala bestea... bietara ez naiz iristen!”. Urte batzuetan gelditu egin nintzen. Irunen gitarra elektriko eskolak ematen jarraitu nuen, baina diskorik egin gabe, zuzenean jo gabe...

—Eta Lurrak zer eragin dizu itzultzeko?

—Ane (abeslaria) ikasle nuen. Bigarren urtean-edo gauzak fintzen-eta hasi ginen, eta horrela sortu zen Lurra. Bob Marleyren heriotzaren urtemuga zela eta, orain dela lauzpabost urte, haren omenezko ekitalditxoak egin genuen; nire ikasleetako batzuk bildu eta abestu Anek egiten zuen... Horrela sortu zen egitasmoa. Orain halako arazotxo bat daukagu. Ane oso gaztea denez “juergasmus”-era doa, Berlinera. Dena dela, bitartean disko berria prestatuko dugu, dagoeneko baditugu kanta berri batzuk... Udaberrirako grabatu nahi dugu, eta udan aurkezu.

—Lurra diskoko azala bera esanguratsua, iradokitzailea da: ohiko munduko mapa buruz behera ipinita.

—Eduardo Galeano idazlearen *Patas arriba. La escuela del mundo al revés* liburuan oinarritzen da; Anek egin zuen. Berak egin ditu letra batzuk, azala etab. Artista da! Galeano asko gustatzen zaidan idazlea da, eta ideia hortik hartu genuen. Gero, interneten-eta begiratura, konturatu nintzen ideia ez zela oso originala, badiarelako halako beste hainbat gauza ere

—Bost kantuko diskoa. Azken boladan halako disko laburrak kaleratu dira.

—Gure kasuan, hasteko modua baino ez da. Algortan jo genuenean azaldu bezala, normalean talde batekin jotzen hastean, Delirium Tremens kenduta, beste guztiekin halaxe egin izan dugu, ez dugu disko osorik atera, hau da: disko motz batekin edo maketa batekin hasten zara, eta gainera bertsio batzuk ere egiten dituzu, zure gustuko kantari edo taldeenak, edota zure talde horrekin harremana daukaten

**“Udaberrirako disko berria grabatu nahi dugu, jada 10-12 kanta inguru ditugu; eta hurrengo udan aurkeztu”**

bai... ‘Lurra’ izenean ere ez genuen originaltasunik bilatzen; kontua da Caetano Velosoren “Terra” (‘lurra’ euskaraz) brasildar kanta entseatzeko hasi ginela, eta orduan jarri geniola taldeari izena. Azkenean, kanta hori ez dugu eskaintzen zuzenean, grabatu ere ez dugu egin, taldearen izenean bakarrik gelditu da erreferentzia.

musikarietak; behintzat ordubete inguruko eskaintzara heltzeko... Orduan gure bost abestiak grabatzea erabaki genuen, egia da orain gehiago ditugula, 10-12 bat. Bonberenean grabatu genituen, Karlos Osinagarekin (Lisabö). Hala egin genuen, nahiko ekonomikoa; diskoei ez genien barra-koderik ere jarri (dendetan



saltzeko egiten dena), kontzertuetan-eta saltzeko, ale-kopuru txikia egin genuen, hasiera bateko zera moduan bakarrik...

—**Zelan doa salmenta? Eta zuzenekoak?**

—Oso ondo! Denak saldu ditugu, fabrikatu genituen ia denak! Gelditzekotan 20 bat edo egongo dira. Eta zuzenekoak ere oso ondo doazela esango nuke...

—**Zuzenekoan zein kantaren bertsoiak eskaintzen dituzue eta zergatik?**

—Karlos Zubikoak, taldeko baxuak (Sagarroin ere ibilitakoa) eta lagunak, oso gogoko duen kanta batekin hasten da: Seu Jorge brasildarraren “Tive Razão”. Gero, Bob Marleyren klasiko bat ere, “Bad card”, sartzen dugu. Kanta hori omenaldi-ekitaldirako prestatu genuen, eta entseaturia genuenez... Mississippiko kantu oso zahar baten bertsoia ere egiten dugu, hamaika aldiz bertsiatu dena... Afrikako hainbat doinu ere sartzen ditugu... Hori da pixka bat gure filosofia, edo gure...

—**Diskoko bost abestiakaz bete-betean bat egiten dutenak, beraz...**

—Bai. Lurra, Mundua... Alde batetik, doinuak munduko leku askotatik hartzen ditugulako: Afrika, Jamaika, Brasil etab. Bestetik, aldi berean, mundua aldrebes dago, oso kritikoak garelako; sistema sozial, ekonomiko eta horrekin guztiarekin gero eta kritikoagoak gara, eta letretan horixe adierazten dugu.

—**Sagarroin eta Joxe Ripiaun ez bezala, Lurran ez zara abeslaria.**

—Zuzenekoetan kantatzen dut, baina diskoan ez, egia da. Zuzenean Negu Gorriak-en bertso bat abesten dut; beno, berez kanta BAP! taldearena da, “Ez dut ezer esan nahi”, eta Negu Gorriakekin bertsiatu genuen... Baina, jo! Askok gustatzen zait nola abesten duen Anek! Eta hori da nik ez abestearen arrazoia, eta nik baino hobeto kantatzen duela iruditzen zaidala. Agian azken hori ez da hain zaila izango...

—**Esandako musika estiloen eta diskoan jasotako artean, benetan aipagarria da “Kanelazkoak” kantan islatzen dena.**

—Keinu bat da, bai. Anek egin zuen

ipuin batean oinarrituta dago. Gero, nik musika egin nuen eta Ander Larrañaga perkusio-jolearekin, darbuka jotzen duela, eta Saharako doinu hori harrapatzen saiatu ginen. Kanta hori jo aurretik, beti esaten dugu: “*Aupa Sahara libre!*” Hori esanda, burura etorri zait Yacinek (Cheb Balowski taldeko buru izandakoa) kontzertua eskainiko duela Getxo Folken irai-

## “Yacinek (Cheb Balowski) Getxo Folken joko du irailean; Patxukok, Solanok eta hirurok berarekin joko dugu”

laren 7an. Argeliakoa da eta Bartzelonan bizi da, laguna dugu. Berarekin jotzera gonbidatu gaitu, eta Sergio “Patxuko”, Solano eta hirurok joango gara. Berak Argeliako doinuak egiten ditu, basamortuko musika; entzutera joateko gonbitea luzatzen dizuet. Gainera, Joxe Ripiauren kanta pare bat ere joko ditugu. Kontua da Joxe Ripiauren garaian, berak Cheb Balowski taldea zuela, eta askotan jotzen genuen elkarrekin, batez ere Katalunian.

—**Joxe Ripiauren *Paradis Zinema* disko hartaraino eroan gaitu *Lurra*-ko “Atticus Finch” kantuak. Zure zinema zaletasuna agerian uzten duen kanta horrek...**

—Noski! Horrek ere *Matar un ruiseñor* (*To Kill a Mockingbird*) pelikula hartzen du gogoan; izan ere, *Paradis zinema* diskoan badago pelikula horri eskainitako

## “Ez dut uste berriro elkartuko garenik, neuk behintzat ez dut ikusten; ez Joxe Ripiaun, ez Kortatu...”

kanta bat. Nire pelikularik gogokoena edo izango da, agian... Beno, ez dakit, pelikula asko gustatzen zaizkit; zinemazale amorratua naiz! Kanta berrien artean *Los lunes al sol* pelikulan oinarritutako beste bat ere badago; dagoeneko zuzenean jotzen dugu, “Eguzki berbera”, eta disko berrian sartuko dugu. Pelikula horrek gaurkotasan izu-

garria dauka, eta baita jorratzen duen gaiak (langabezia) ere. Nire bikotea Trapagarangoa da, hortik asko ibili gara; eta inguru hori oso joditua dago! Orain nire bikotearen koadrilakoekin eta biltzean, denak langabezia daude! Ikaragarria da! Gogoan dut *Los lunes a sol* zineetara heldu zenean Max Centerrera joan ginela ikustera, eta jende piloak zegoen! Orduan han

langile piloak bota zituzten kalera, eta gaur egun jarraitzen dute...

—**Lehenengo bideoklipa, “Lurraren blue note” kantarena, orain urtebete grabatu zenuten Algortako Portu Zaharrean. Zelan izan zen? Gainera, amaiera deigarria dauka, “Sirenoa”-ri hare-pilotak jaurtiz...**

—Kronopio Films daukan Inazio Morok egin du bideoa. Bera Joxe Ripiauren zale amorratua zen/da; kontzertuetara etortzen zenean beti “Pedro Mayo” eskatzen zuen! Eta azkenean jotzen genuen... Gero, Sagarroi garai osoan, uste dut 9 urte edo izan zirela, zuen inguru horretatik jotzen bagenuen han agertzen zen eta “Pedro Mayo” eskatzen zuen! (Kar, kar). Orduan ezin genuen jo, ez geneuen akordeoirik... Orain Lurrarekin ere jarraitzen du “Pedro Mayo” eskatzen! Aurrekoan, Algortako kontzer-

tua bukatzean, esan nuen: “...*berriz itzali zaik ba!*”. Kontua da berari Katalunian grabatutako kontzertu bat *youtube*-ra igortzeko eskatu niola... Joxe Ripiaurekin Katalunian kristoren arrakasta geneukan, kontzertu piloak egiten genuen han! Behin Vic herrian jo genuen, jaiak ziren eta kristoren jende pila zegoen, kontzertua oso

ondo grabatuta zegoen; eta berak igo zigun sarera. Orduan bideoklip bat egiteaz hitz egiten hasi ginen... Berak bere istorioak, film laburrak bidaltzen zizkidan, eta txorakeria batzuk... Izan ere, baditu barre eragiteko hainbat lan! Esaterako, badauka bat, *El arco de iris anticapitalista*, oso-oso txoroxa eta barregarria dena... Gauza da azkenean berak grabatu zuela bideoa. Nik

## “Ez da erraza ez, superzaila da kontzertuak ematek eta diskoak saltzetik bizitzea. Ez bazara Fermin! (kar, kar)”

Ane kantatzen grabatu nuen eta berari bidali nion; gainerako guztia berak egin zuen, lagun artean. Nik ez nituen ezagutzen, baina Algortan jo ondoren bere etxera joan ginen afaltzera, han ezagutu nituen batzuk. “Pedro Mayok” (Inazio Morok) afori mexikarra prestatu zigun, han egon ginen ez dakit zer ordutara arte... Bideoaren amaierari dagokionez, zer ote zen jakiteko sarean ibili nintzen “ikertzen”, “Sirenoa” eta zer eztabaida egon zen... Bideoan honddarra botatzen diona ere ezagutu nuen...

—**Hurrengo kontzertuak non?**

—“Patxuko”rekin (Esne Beltza), Joxe Ripiaun ere ibilitakoa, orain biratxo bat egiten ari gara, Lurra eta Patxuko Nice. Patxuko Nice (‘naiz’ ahoskatuta, hitz-jokoa da) da bere proiektu berriaren izena. Esne Beltzako gehienak nire anaia Ferminekin dabiltzalako, eta bitartean Patxukok beste

proiektu bat abiatu du. Larrabetzuko gaztetxean joko du, abuztuaren leian, uste dut; gero Arantzan (Nafarroa), Lezon etab. Bilboko jaietan ere txosnetan jotzeko asmoa dugu, begiratzen ari gara...

—**Estiloagatik agian, emoten du bestelako aretoak aproposagoak liratekeela?**

—Bai, egia esan, hala da. Gure asmoa kafe antzokietan-eta jotzea zen. Baina Esne

Beltzarekin gaztetxe pare batean jo genuen, eta azkenean, ez genuen hain gaizki ikusi. Joxe Ripiaun dantzatzeko zen, dudarik gabe; Lurra agian eserita entzuteko, gauza lasaia da. Gure adinean... (kar, kar), ‘gure’ adina baino ‘nire’ adina!

—**90eko hamarkadako talde asko ohol-tzara itzuli dira. Joxe Ripiaun edo Kortatugaz barriro gozatzeko aukera izango dugu?**

—Ez dut uste. Orain dela aste batzuk Ferminekin hemen Irunen jo zuen eta neu ere igo nintzen eszenatokira “Sarri, Sarri” jotzera! Flashback bat izan zen niretzat... Baina ez dut uste berriro elkartuko garenik, nik behintzat ez dut ikusten; ez Joxe Ripiaun, ez Kortatu... Denok nola gauden ikusita, ez dut ikusten. Negu Gorriak-ekoei begiratuta, ikusten dut beste “onda” batean gaudela, familiarekin, “kriantza”

deitzen dena... Energia soberan duena nire anaia Fermin da! Ez da inoiz nekatzen, nire alaba bezalako da! Baina gainerakoak... Ez dut neure burua ikusten bi orduko kontzertu bat eskaintzen Negu Gorriakekin! Datorren urtean 50 urte beteko ditut...

—**Eta? Ferminek gehiago ditu!**

—Baina Fermin bezalakoak zenbat?! Bera makina bat da! Ez da inoiz nekatzen... Txikitan marmitan erori zela ematen du... Eta “jotafuego” jarraitzen du! Sinestezina! Nik ikusten dut eta nekea ematen dit! —Gurean “*rock&rollak ez du dirurik ematen*” dio kanta hark. Ostera, zuzenean hiru anaia eta hirurak musikari...

—Bai, baina... Euskal Herrian nik oso jende gutxi ezagutzen dut musikaz bizi dena; anaia Fermin agian, eta bera ere dokumentalak egiten ibili da Al Jazeera-rako, emirerrien petrodolarrek kobratzen seguraski... Baina Euskal Herrian zenbat jende ezagutzen dugu musikatik, kontzertuak egitetik, bizi dena?! eskolak eman gabe?! Nik eskolak ematen ditut, Jabier anaia Radio Euskadin/Euskadi Irratian ere lan egiten du, eta hala dabil jende gehiena... Solano ere Esne Beltzarekin begira nola ibili den, piloak jo dute; baina ez du utzi bere lana, berak musika-eskolak ematen jarraitzen du Oiarzunen. “Ez da erraza” ez, *superzaila* da talde bat osatu eta kontzertuak ematek eta diskak saltzetik bizitzea; ezinezkoa dela esango nuke... Ez bazara Fermin, oso zaila da! (kar, kar) ○

### Muguruzatarren gazteena

—**Muguruzatarren hirugarrena, anaia txikerrena zeu. Onerako eta txarrerako, zer edan duzu eurengandik?**

—Pilo bat! Musika aldetik, anaia Jabierrek Deep Purple-en diskoak, “Smoke on the Water” abestiarenak-eta, ekartzen zituen etxera ni umemokoa nintzenean! Eta nire gurasoen etxeetatik pasaden disko-kopurua zenbakaitza da! Milaka, milaka! Gero, bakoitza bere etxe-

ra joatean kristoren eztabaidak izan genituen, disko bakoitza norena zen erabakitzekeo!!!! “*Hau nik erosi nuen...*”, “*Niri hau oparitu zidan nire nobia zenak, Rosa deitzen zenak... ez bestea...*”, “*Ez, ez... hori nik erosi nuen ez dakit nongo denda...*” Hala ibili ginen hilabetetan!!! Eta oraindik jarraitzen dugu: “...*uste dut disko hori nirea zela...*” Musika aldetik piloak jaso dut, eta piloak eskertzen diet

haien eragin guztia, eta ezagututako guztia.

—**Eta alde txarrik?**

—Parte txarra? Uste dut denok txikitan izan duguna, borrokan aritzea anaia artean... Baina ez dut erresistentdurik gordetzen, ez! Mobidak eta gogoratzen ditut, baina txikitakoak... Orain aita naitzela, nire alabengan ere ikusten ditut, eta berdin-berdin...



ARRIGUNAGA

# Hondartzan!

Aurten kostata, baina hasi gara hondartzaz gozaten. Urtez urte eta garaiz garai ederto pasatu dugu uribekostarrok bertan, aretza ederrak ditugu-eta! Horren adierazle dira argazkiok, garai desberdinetako ohituraren lekuko. Ikus daitezke Getxoko Aretza, Ereaga eta Arrigunagako hondartzak, Sopelako Arriatera, Plentziakoa eta Gorlizkoa; azken horretan antzematen da noraino iristen zen itsasoa, orain dela ez asko bezala. Eta hortxe dituzue garai bateko etxolak eta bainujantzi bitxiak ere bai; emakume batzuk guztiz jantzita, bainatzeko asmorik ez antza... Gozatu gure hondartzak eta gozatu uda!

Argazkiak: **Getxoko udal-liburutegia eta Plentziako Plasentia Butron Museoa**



ARRIATERA



ARRIGUNAGA



EREAGA



AREETA




EREAGA



AREETA



PLENTZA



PLENTZA



PLENTZA



GORLIZ

**Erandio industrialia** > ibilgailu ekoizpenaren lekuko

## “Erandioko industria garaiko ilunpeko altxorak disdiratsu bihurtzen”

Askoren irudipena da bizi garen herriari buruz gero eta gitxiago dakigula. Ez ei dakigu nondik gatozen, ez eta gure herriko parkearen arrazoia, edota fabrika hutsaren zergatia. Bada historia luzea, inguruan, paraje, duguna; oraingoan, Erandioko atzo hurbilaren historia ezagutzera goaz...

**Gaur egun,** gitxi dira gurean ekoiztutako ibilgailuak. Japonia, Alemania... zein munduko beste txokora begiratzen dugu autoen ekoizpenaren gainean gabiltzanean; gurean, baina, nahiz eta egun zenbait arrazoi dela-eta horrelako ekoizpenik ia ez gertatu, iraganari begiratu beharko genioke; izan ere, gure inguruan ere baziren ibilgailu ekoizle esanguratsuak. Hala, frankismo garaira jauzi egin, eta Erandi-orantz begiratuz gero, erraz antzemango genezake historiako une hartan, han bertan, industri-jarduera erabat nabarmendu zela. Eta hori, besteak beste, lau hazitara zabaltzea, argitan emotea izan da Txetxu Aurrekoetxea erandioztarren helburua, berak azaldu legez: *“Gure herriko datu historikoak argitan emotea izan da nire helburua; izan ere, inor gutxi daki gure herriko, Erandioko historiaren pasarterik. Eta ezagutaraztea izan da lan honen bitartez egiten saiatu naizena”*. Horrela, Aurrekoetxeak artikulu luzea idatzi du gaiaren inguruan, eta horretan badira azpimarratzeko hainbat kontu, berbarako: 50eko eta 60ko hamarkadetan Erandiotik munduratu ziren Premeta motor ospetsuak ekoizten hasi ziren. Motor horiek bere osotasunean Erandion ekoizten eta montatzen ziren; eta modelo bi egiten zituzten, 175 cc. eta 225



Garai hartan ez ziren mota honetako motor asko

cc. Une hartan, horiek nazio mailako bakarrenetarikoak izan ziren. Asko ziren motor haien ezaugarriak, esaterako: eserleku erosoak zituzten, eta 80-90 km/h abiadura lortzen zuten. Horrez gainera,

### “Premeta motorrak egiteari utzi zioten 1954an; guztira 25 ekoiztu ziren”

garaiko motor-aditu askok adierazi bezala, motorra erraz gidatzen zen. Premeta motorra, esan legez, bere garaian bakarrenetarikoa izan zen, eta horrek zabal-kunde handiagoa izatea ekarri beharko zuen; oster, merkaturatu zeuden beste gitiakaz alderatuz gero, Premetaren prezioa altuena zen. Arrazoi horrek ekarri zuten hainbesteko oihartzunik ez erdies-tea. Baina, Txetxu Aurrekoetxearen esa-

netan *“garai hartan, Erandion izpiritu ekintzailea zen, eta horrek, hain zuzen, bultzatu zituen Premetaren sortzaileak motorraren munduan murgiltzera”*. Guztira, 25 motor Premeta ekoiztu ziren, eta azkena Erandioko Zehaztasun Taller mekanikotik kaleratu zen 1954an. Azken motorra merkaturatzeagaz batera, Premeta enpresak ekoizpen-produktua aldatu eta makina tresnak ekoizten hasi zen.

### Lehen auto elektrikoa

Baina Premetak ekoiztutako motorrak ez dira Erandio industrializatuaren historiaren ardatz bakarrak; izan ere, eskumaldekoko herri honetan bertan sortu zuten Wesa enpresak penintsulako lehen auto elektrikoa. Hala, lehen auto hori sortzeko lokomotoretako haizagailu-motorra erabili zuten. Aldiz, kontrol-ekipoa erabat elektronikoa zen, alde hori izan zen



Erandion penintsulako lehen auto elektrikoa ekoiztu zen

zailtasun gehien eragin zituena, hain zuzen ere. Bateria alkalinoak, Nife markakoak erabiltzen zituen, Deustuan egindakoak. Lehen auto elektrikoa harkk 70 km orduko abiadura hartzen zuen eta 80 kilometroko autonomia zuen. Hala, autoaren probak 1974ean egin zituzten, eta urte hartan bertan merkaturatu zuten. Auto elektrikoaren sorrerak hedabideetan oihartzun handia lortu zuen, baita gizartean ere. Baina, ez ziren horretan gelditu, eta urte berean Wesa enpresak auto elektrikoaren bigarren proiektua ga-

### “Lehen auto elektrikoa 1974an sortu zuten; 1975ean bigarren eredu”

ratu zuten: haren abiadura 80 km/h zen eta 100 kilometroko autonomia zuen. Horrenbestez, kasu horretan enpresaren irizpideak askoz ere komertzialagoak ziren: autoak atera zitezkeen bateriak zituen, pisuaren optimizazioa lortu zuten, autoaren motorra oso arina zen e.a. Hala, 1975ean bigarren autoa, barrikuntza horiekaz danakaz, Bartzelonako Ibilgailuen azokan aurkeztu zuten. Urtebete

127 modelo elektrikoa bihurtu zuten. Hala eta guztiz ere, azken modelo horrek ez zuen etorkizun handirik izan...

Hurrengo urteetan, Erandioko ibilgailuaren industria mikrobusaren proiektuan erabat murgildurik egon zen; eta 1980an mikrobus elektrikoaren egitasmoa amaitutzat emon zuten. Mikrobu-

### “Seat eta Wesa enpresek Seat 127 autoa elektrikoa bihurtu zuten 1977an”

sak 70 km orduko abiadura lortzen zuten, eta 110 kilometroko autonomia.

### Garai hartako I+G+B

Gaur egun, sarri entzuten ditugun Ikerketa, Garapena eta Barrikuntza berbak eta lan-lerroak enpresa erandioztarren ardatza izan ziren; eta aipatutakoak horren lekuko pare bat baino ez dira. Erandiok hainbat bertute eta ezaugarri izan zituen, Aurrekoetxearen esanetan: *“Erandioren galera industrialia sekulakoa izan da, eta industria, altxor hura, berreskuratu beharko genuke, eta noski, behin izan ginena ikasi eta gogoratu”*. ○

Frankismo garaian Erandion 5 ontziola zeuden





**BETIKO**  
IKASTOLA

**Kalitatezko irakaskuntza euskalduna**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GARZK?**



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Basartena zinema-jaialdia

Urdulizko kultur etxearen kanpoaldean, **uztailaren 27an** izango da **erakustaldia**



Info+: [www.basartena.com](http://www.basartena.com)

**Urdulizko Basartena** tabernako buru, aktore eta zinema-zale Patxi Lazkano Basartek aurrean ere martxan ipini zuen Basartena film laburren lehiaketa. Orain aukeratutakoak erakusteko txanda da; horretarako uztailaren 27an ipini du hitzordua, gaueko 22:00etan, Urdulizko kultur etxearen kanpo aldean.

Basartek azaldu duenez, aurtengo lehiaketara 230 film labur aurkeztu dituzte: "gehienak gazteleraz dira, euskarazko oso gitxi jaso ditugu, 5 inguru. Bestalde, aurreko ekitaldiak alderatuz, zinema-eskolen parte-hartzea ere izugarri jaitsi da... Zentzu horretan, harrিতa gaude, lehen askoz ere lan gehiago bidal-

tzen zituzten ikasleek, ostera aurrean, atal horretan film labur bi baino ez ditugu jaso".

Lan horietatik guztietatik 10-12 film inguru eskainiko dituzte uztaileko emanaldian. Batetik, Koldo Serra, Borja Crespo, Aitor Elorriaga, Amaia Nerekan eta Patxi Urkijok osatutako epaimahaiak hautatutako 10 lan-fina-

**«Iazko Basartena lehiaketako lan onenak aurtengo Goya saria jaso du»**

listak; bestetik, euskarazko, animaziozko eta zinema-eskolen ataleetan gailendu diren lanak. Lazkanok aurreratu duenez, "iaz ez bezala, aurrean momentuz ez dugu irabazle argirik. Pasa den urtean bai; aurretik, zalantza barik, bagenekien Esteban Cresporen 'Aquel no era yo' filmak irabaziko zuela sari nagusia. Haren kalitatea, eta ekoizpen-aurrekontua ere, gainerakoek gainetik zegoen... Hala, aurtengo Goya sarietan ere lan hori berori izan da sariduna...".

Eta sariak aipatuta, irabazleen artean hauek banatuko dituzte: fikziozko eta animaziozko lan onenek 600 euroko sari bana jasoko dute, zinema-eskolen lan onenak 300 euro eta euskarazko lan onenak 200 euro (sari horretan UK aldizkariak laguntzen du). ○

## Getxo Folk jaialdia irailean

**Kepa Junkera eta Budiño, Clannad, Yacine eta Kukai** taldeak, besteak beste



Argazkian, The Oriental Groove. Kontzertu nagusietarako sarrerak abuztuaren 5etik aurrera salgai

**Getxoko** Nazioarteko Folk jaialdiak 30. urteurrena betetzeko urtebete baino falta ez duenean (XXIX. ekitaldia izango da aurtengoa), egitarau oparoa prest dauka.

Kontzertu eta ikuskizun nagusiak Areetako Geltokia plazan izango dira gaueko 21:00etatik aurrera (azken eguneko saioa izan ezik, 22:00etan hasiko baita). Hala, lehenengo egunean, irailaren 5ean Kepa Junkerak (Euskal Herria) eta Budiño (Galizia) eskainiko dute kontzertua; bigarrenegun, irailaren 6an, Irlandako Clannad taldearen musikagaz gozatzeko aukera egongo da; hirugarrenean, irailaren 7an, Yacine &

The Oriental Groove taldearen Aljeriako eta basamortuko doinuen txanda izango da (euskal gonbidatu bereziak izango dira emanaldi honetan), eta irailaren 8an amaituko da Folk jaialdia, Kukai taldearen 10. urte ikuskizunagaz. Horrez gainera, ohi den legez, Geltokia plaza alboko aparkalekuan beste hainbat emanaldi egongo dira: Arratsaldeko Saioak egunero (19:00), Munduko Terrazak gunean Kataluniako Tazuff taldeak (irailak 6, 23:00) eta Dead Bronco getxoztarrek (irailak 7, 23:00) joko dute; eta Titiriteros de Binefar taldeak umeei begirako saioa eskainiko du (irailak 7, 12:30). ○

## jaialdia(k) >

en vivo

En Vivo izeneko jaialdia abuztuaren 29tik 31ra izango da, baina kontzertuak elkarrekin urrutxo dauden hiru lekutan egingo dira: Miguel Rios auditorioan (Rivas Vaciamadrid, Madril), Parc del Forum aretoan (Bartzelonan) eta Kobetamendin (Bilbao). Hala, hainbat taldek hiru lekuetan joko dute egun ezberdinetan, eta leku bakoitzak berezko eskaintza ere izango du. Hurbilenari dagokionez, emanaldiak abuztuaren 30ean eta 31n izango dira, eta Kobetamendiko egitaraua hurrengoa da: The Offspring, Witin Temptation, The Toy Dolls, El Drogas, Berri Txarrak, Molotov, Soziedad Alkoholika, Shikari Sound System, Celtas Cortos, Mago de Oz, Boikot, Banda Bassotti, Kaotiko, Lendakaris Muertos, Potato, Segismundo Toxicomano, Los Zigarros, Porco Bravo e.a. Sarrerak (34 euro inguru) salgai daude.

Info+: [www.envivofestival.com](http://www.envivofestival.com)

## jaialdia >


kutxa kultur festibala

Igeldoko jolas parkean egingo da irailaren 6an eta 7an Kutxa Kultur Festibala. Lehenengo egunean, barikuan, besteak beste, hurrengoek joko dute: Crystal Fighters (23:30), Delorean (21:45), Belako (20:00), Junip (18:15) eta Damien Juradok (16:45). Zapatuan, ostera, ondorengoek: Dinosaur JR (23:00), Dover "Devil Came to Me" (21:15), Built to Spill (19:30), Crocodiles (17:45), Bobby Bare JR (16:00) eta Audiencek. Gainera, Kultur Musika Eszenatokian Cohen, UK Bill, Lou Topet, Istrian eta Napoka Iria izango dira.

Info+: [www.kutxakulturfestibala.com](http://www.kutxakulturfestibala.com)

## diskoak

**W2**  
Los Wachisneis  
Errabal (Hotsak)



"Kolonbiako folkloreak, jazzaren, musika klasikoa-ren, poparen, rockaren eta musika garaikidearen iturrietatik elikatzen den musika" egiten du Donostian finkatutako zazpikoteak. Euskal Herriak, Kolonbiatik, Extremaduratik, Galiziatik, Aragoitik eta Frantziatik etorritako musikariak osatutako taldeak bigarren diskoa du hau.

**Sputnik13**  
Batzen artean  
Bonberenea Ekintzak



Bonberenea gaztetxeak Sputnik 13 bilduma osatu barri du. Disko honetan Atila y Los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wai Not taldeen hainbat abestiren aukeraketa entzun eta horiekaz gozatu ahaliko duzue. Aurkezpena Bonberenean egin zuten, eta gaztetxearen eta ziguilaren webgunean eros dezakezue bilduma hau.

**Burbuja**  
Iñaki Rodriguez  
Errabal (Hotsak)



Saxofoi-jole nafarrak bakarkako lehenengo diskoa plazaratu du Errabal Jazz ziguilugaz. "Pop, blues edo jazz modernoaren bidetik doaz bertan jasotzen diren konposaketa originalak. John Coltrane beti presente...". Broken Brothers Brass Band taldeko partaide aktibo ere bada Rodriguez, eta New Orleans-eko taldeen antzera hamaika kaletan zein jazz jaialditan jo dute.

**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
[www.garaizar.biz](http://www.garaizar.biz)  
Ileta kalea 1 • ALGORTA

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI



Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

etorri  
eta  
ikusii!

**MORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

## Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

**I**

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Komiki-lehiaketa

**Euskarazko** komikien eskaintza sustatzeko sariketa martxan ipini du **Saure** argitaletxeak

“Komikiak ere euskaraz” lehiaketa antolatu du Saure argitaletxeak, “euskara eta komikiaren arteko lotura indartu nabilan, eta euskarazko idazketa bultzatzeko”. Azaldu dutenez, marrazkilariek egindako irudietan oinarritutako istorioa idatzi beharko dute parte-hartzaileek, hau da, argitaletxearen webgunean hainbat komikiren marrazkiak proposatuko dituzte, eta horien gainean istorioa idaztea dagokio parte-hartzaileari.

Parte hartzeko baldintzei dagokienez, hurrengoak bete beharko dira, besteak beste: 14 urte edo gehiago izatea; testuak euskaraz idatzi beharko dira eta *on line*; izen-emotea banaka egingo da, ez taldeka, horretarako propio sortutako web orrialdean; idazketa-lanaren ondoren, parte-

**«Marrazkietan oinarritutako istorioak euskaraz eta on line idatzi beharko dira»**

hartzaileek galdetegi bat ere bete beharko dute (arlotan duten ezagutza-maila ebaluatzeko); parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du e.a.

Antolatzaileen gomendioen arabera, “*komeni da lehendabiziko orria irakurtzea, hor egoera eta pertsonaiak azaltzen baitira. Bigarren, hirugarren eta laugarren orrial-*



Idazlanak aurkezteko epea: urriaren 18ra arte

*deetan, komikietako marrazkiak eta buntailo hutsak daude, horiek bete behar dira”.*

Epaimahaia 10 istorio onenak sarituko ditu; lehenengo saria 300 euro, diploma eta ekomiki baten sarbide-kodea izango da, bigarrena 200 euro, diploma eta ekomiki baten sarbide-kodea, hirugarrena 100 euro, diploma eta ekomiki baten sarbide-kodea, eta gainerakoena diploma eta ekomiki baten sarbide-kodea. (Oharra: diru-sariei PFEZ kenduko zaie).

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da, horrenbestez lasai eta patxadaz prestatzeko aukera badago. ○

Info+: [www.ekomikiak-saria.com](http://www.ekomikiak-saria.com)

liburuak



### Zinegotzia

Fermin Etxegoien  
Erein

Egun bakarren gertatzen da kontakizuna, 2013ko ekainaren 6an, eta hala hasten da: “Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean...”. Fikziozko eleberria bada ere, errealitateari eta gaurkotasunari heldu dio Etxegoienek.



### Pasio krimena

Fernando Morillo  
Gaumin

Nobela honeguz zientziara hurreratu da berraro Morillo. Pasioaren alde biak, pizgarria eta suntsigarria, nabarmen-tzen dituen eleberria thriller zientifikotzat jo dute: “hilketak, amorrua eta maitasuna, sexuaren indarra eta itsukeria, adiskidetasunaren gozoa. Pasioaren gatza eta latza”.

## Ricardo Otxoa memoriala

**Getxoko** Zirkuitua izeneko txirrindularitza lasterketa **eguztenean** egokitu da



Info+: [www.puntagalea.com](http://www.puntagalea.com)

**Uztailaren 31n**, San Inazio egunez egiten da Getxoko Zirkuitua, Ricardo Otxoaren omenezko txirrindularitza lasterketa. Aurten probaren 68. edizioa eta Ricardo Otxoaren omenezko 13.a izango da, eta eguztenean egokitu da. Punta Galea Txirrindulari Elkarteak antolatzen du.

Oraingoan ere Arkotxako murruan ipini dute helmuga: orain dela urte batzuk helmuga aldatzeko eskatu zuten zaleek eta antolatzaileek onartu; irteera eta helmuga, biak egongo dira bertan.

Goizeko 09:30ean abiatuko dira txirrindulariak eta ondoko bidea egingo dute: Foruen kalea, Euskal Herria, Telletxe, Bidezabal, Aingeruaren etorbidea, Zientotxe, Moreaga, Kurtxe, Bilbo-Plentzia errepidea, Ollarretxe, Makaleta etorbidea, Artatzako biribilgunea, Gobelaurre/Amaia kalea, Gabriel Aresti, Lamiako, Autonomia etorbidea, Eduardo Coste, Zugatzarte etorbidea, Arriluze, Ereaga eta Txomin-txu/Arkotxa-Foruen kalea. Beraz, zale, aukeratu lekurik onena proba ikusgarria ber-

tatik bertara ikusi eta gozatzeko!

Izan ere, zirkuitu horri 10 itzuli emongo diote parte-hartzaileek, guztira 170 kilometro. Helmuga aldatsan gora izango da, Ereaga hondartzatik 800 metrora: Txomintxu-Arkoxta kaleetatik %8 eta %10eko aldatsak daude.

**«Zirkuituari hamar itzuli emon behar diote, guztira 170 kilometro izango dira»**

Baina azken-azken metroetan sortuko dira unerik zirrargarrienak, helmugatik 150 metrora %14ko aldatsa daukan tarte bat baitago, 25 metrokoa.

Oraingoan, Punta Galeak iragarri du ondoko taldeek parte hartuko dutela (talde gehiagoren baieztapenaren zain daude): Movistar, Euskaltel-Euskadi, Caja Rural, Saur-Sojasun, Burgos BH, Bretagne, Cofidis, Euskadi eta Lokosphinx. Iaz Movistar taldeko Giovanni Visconti italiarrak irabazi zuen 3:56:11 denboragaz, Danilo Di Luca eta Enriqye Sanzen aurretik. ○

[kirola]

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda




**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Jose Uriarte** > Bizkaiko Osasun Mentaleko sareko kidea

## “Buruko gaitza daukana integratu eta zoriontsu izan daiteke, tresna egokiakaz”

**Buruko gaixotasun larrien prozesuen arduraduna da Jose Uriarte doktorea Bizkaiko Osasun Mentaleko sarean. Orain hilabete zabaldu dute eguneko ospitale edo zentro barria Areetan, inguruko pazienteei arreta eskaini asmoz.**

—Zer dela eta zentro barria zabaldu?  
—Orain arte Zamudioko psikiatria-ospitalera joan behar zuten pazienteak berko-katzeko aukera eskaintzen du: onena da baliabideak herriko zentroetan edukitzea; zerbitzua etxetik hurbilago izatea; Uribe aldeko 30 pertsona artatu ahal izango ditu Areetako zentroak. Horietan, batez ere, buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonak artatzen ditugu, tratamenduz gain, jarraipen intentsiboagoa behar dutenak: eguneroko bizitzarako sostengua behar dute jendarteratzeko. Izan ere, euretako askok gaitzari lotutako minusbaliotasunak dituzte, harreman sozialak garatzeko arazoak, eguneroko jardueri aurre egiteko, antolatze, botikak egoki hartzeko, etab. Babesa eskaintzen saiatzen gara, pazienteek gaitzagaz bizitzen ikas dezaten, eta ahalik eta autonomoen izan daitezen.  
—Beraz, zentro barria zabaltzeak ez du esan gura paziente gehiago dagoenik?  
—Orokorrean datuak bere horretan mantentzen dira urtez urte. Adibidez, ezin da esan krisi ekonomikoak gaixotasun gehiago eragin duenik. Batzuetan arinkeriaz hitz egiten da eta esaten da, adibidez, jendea bere buruaz beste egiten ari dela krisia dela eta. Ez da egia, suizidio-kopuruak ez du aldaketa nabarmenik izan eta, gainera, ez da horrelakorik espero izan behar: jokabideok alderdi oso konplexuak daukate oinarrian eta horietako nagusia da buru-gaixotasuna. Bere buruaz beste egiten du-



Getxoko Paulino Mendibil kaleko 3.ean dago ospitale barria, Areetan

tenek, normalean, buru-gaixotasun larriak daukate.  
—Paziente horiei baliabideak eskaintzen dizkiezue egunerokoari aurre egiteko, jendartean bizi dira.  
—Osasun mentalak gainditu beharreko oztopo nagusia da: estigma. Beraz, asko eskertzen dut Getxok zentroa zabaltzeko

**“Jendartearen parte dira, edonori gerta dakioke; eskubidea daukate bizitza normala egin eta zerbitzurik onenak jasotzeko”**


aukera emon izana: jendarteak irudi partziala izaten du gaixotasunoi buruz, arriskuari eta indarkeriari oso lotua, batzuetan hedabideek elikatua; baina horrelakoak oso gixitan gertatzen dira eta ez dago benetako harremanik arriskuaren eta buruko gaitzen artean. Kontrakoa, gaixotasuna daukanak gainontzekoek baino 10-15 al-

diz arrisku handiagoa dauka erasoak pairatzeko eta 10-15 urte gitxiagoko bizi-itxaropena: egoera ahulean daude eta laguntza behar dute, ez eurengandik gordez. Jendartearen parte dira; ez dago urrunera jo beharrik horrelako pertsonak topatzeko: edonori gerta dakioke, ohiko arazoak dira. Gure artean bizi dira eta es-

kubidea daukate bizitza normala eta zoriontsua egiteko, eta zerbitzurik onenak jasotzeko. Gaixotasun kronikoak ez dira sendatzen, burukoak ere ez, baina zerbitzu eta baliabide egokiakaz, hobetu eta integratzen dira, baliagarriak dira jendarterako eta bizitza zoriontsuak gara ditza-kete. ○

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com) webgunera jo.



Galtzagorriak. Ilustrazioa: Daniel Castello

## Galtzagorrien olerkiak

Beti taldeka,  
beti zeozer egiten,  
lanak, jendea zirikatu...

Tamaina ñimiñoko izakiak  
praka gorriekin jantziak  
bihurriak eta langileak

Gaua aproposa da  
San Juan gaua, hain zuzen ere,  
egunik luzeena eta gaurik motzena.

Sollubera igo naiz,  
Ilargi amandarearen argitasunaz lagunduta.  
Goialdean, ia tontorrean, lekua topatu dut.

Orratzontzia zabaldu dut,  
Zelaitxo baten erdian kokatu  
ta sasien artean jarri naiz.

Gauza bakarra egin dezaket: itxaron.

Hurrengo egunaren lehenengo izpiekin  
orratzontzia ixtekotan,  
niretzat izango dut Galtzagorri talde bat.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua **Jatetxea** Karta  
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA JATETXEA**

C/ Alangobarrri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMIZTEAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**




**GOSARIAK PINTXOAK**

KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
**SOPELA**  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

[pintxotan]

## Jakirik gozoenak bekatuen artean, tentagarriena



Oso azkar egiteko pintxoak, eta erabat erakargarria

**Oporretan** joan aurretik pintxo ederra ekarri dizuegu Portu Zaharreko tabernatik bertatik, eta oporretan ahogozoagaz joan zaitezten, pintxoan jakirik gozoenak aurki ditzakezue. Adi, bada, erraz eta edozein momentutan egitekoa den pintxoaren azalpenari. Pintxoagaz hasteko, txapata ogi-xerra txigortuko dugu; jarraian, horren gainean, ahate-pate zati bat jarriko dugu; pateak ez dugu ogian zabalduko, zatia osorik utziko dugu. Horren ostean, ahuntz-gazta xafla bat moztu eta minutu batzuetan sutan izango dugu, zapore eta ehundura ederra har dezan.

Beraz, orain artean, ogiaren gainean pateak eta ahuntz-gazta izango ditugu, baina pintxoak ez da horretan geldituko; izan ere, jaki gozo horiekaz batera, urdai-

azpiko ondu xafla bat jarriko dugu. Hor-taz, pintxoak hiru jaki ederrez osatuta egongo da. Horrekaz batera, gainera, tipula sutan gorrituko dugu, ostean pintxoak lagun dezan. Bukatzeko, barriz, dana gure txapata ogi-xerraren gainean daukagula, modera trufatu tanta batzuk botako dizkiogu gainetik. Saltsa hori supermerkatuetan aurkituko duzue salgai. Hortxe, 5-10 minutu inguru egiteko pintxo erraza. Erraza ez ezik, gozo-gozoa ere bada honakoa; izan ere, pateak, ahuntz-gazta eta urdaiazpikoaren kontrasteak bat egingo du tipula gorritu eta modera trufatuagaz. Portu zaharra tabernako bekatu eskuragarria. On egin!

**Osagaiak: txapata ogia, ahate pateak, urdaiazpiko ondua, tipula, modera trufatua**



**Croissanterie Briocherie**

MONTE IAJA 1  
48995 Getxo (Bizkaia)  
croissanterie-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**

**Harategia eta txarkuteria**

**ARTESANA**

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarrri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berrí**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torrene 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
irati.algorta@gmail.com  
**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lincarreriak  
Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO

**Turikaldai**

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87 (sarera, Jata Mendia) T. 400 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Hasieran saskibaloia, ondoren korrika... eta mendira igotzen ere animatu zara azkenean! Baina hobe zenukeen apurka-apurka hastea, hirumilakoak gogorak dira eta...

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Berotzen hasi da azkenean eta aukera baliatzea erabaki duzu, eguzki-izpi danak zurrupatu guran zabilta. Gehiegikeriak ez dira onak, kontuz ibili gero, erre barik!

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Udako oporraldi danatan legez, jairik jai zabilta koadrilagaz, lotu barik. Aste akabu honetan ere plan polita prestatu duzue eta gogotsu joango zarete parranda egitera: ondo pasa!

**AITZURRA**




(Martxoak 21 apirilak 19)  
Merkeagoa zelakoan hartu zenuen opor ekainean, baina a zer eguraldi kaskarra! Beno, ez ipini triste: aste akabuak aprobetxatzea badaukazu oraindino, beraz ez etsi!

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Zelan zabilta kokondo artean? Gustura, ezta? Gu, barriz, jeloskor gauzkazu. Horoskopoa bidaiaitik bueltan irakurriko duzue, bitartean kritika zaitzakegu... Tori mosutu bat!

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Ilargia lagun daukazu azken aldian, eguzek etxetik urten barik eguzkiari ihes egin diozula dirudi: alergia diozu, ala? Horrela bada, babesteko krema erosi eta ondo igurtzi gorputz osoan...

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Aspaldi parrandan urten barik eta lagunak animatuko zara egunotan. Gainera, beste koadrila majo bat ezagutuko duzue eta danek ligatuko duzue, zorianekoak zuek...

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Zorionak... eta urte barri on! Ez, barkatu, zorionak zuri eta zorionak beti! Urteak betetzeagatik oparitu dizute eguraldi ona, zorianekoa zu, baina beste danok ere bai! Eskerririk asko!

**IRATZEA**



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Hemen berotzen hasi eta Siberiara joatea bururatu zaizu, ero halakoa! Urte osoan hoztura ibili gura duzu? Ea uda giroa irailera arte luzatzen den behintzat, horrela beroa ere ezagutu ahal izango duzu.

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Lagunik onenaren urtebetetzea ahaztu duzu, berriro ere! Aitzakiaren bat asmatu eta opari politen bat egin beharko diozu arin baino arinago, betiko haserretuko zaizu bestela.

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Pagak gero eta denbora gixiagi irauten dizu, ezta? Danok gabilta bardin! Supermerkatuko eskaintzak aprobetxatzen ikasi beharko duzu, gurasoek ez dizute-eta gehiago emongo.

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Negua joan da... Abesti ederra eskaini zizuten duela pare bat urte eta oso modan egon da ordutik, danen ahotan. Baina, azkenean, letra aldatu behar izan diote eta orain kantatzen da: *Negua ez da joan...*



**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia - fisioterapia  
**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779

Astaldi eta suspertze soziokulturaleko **IKASTARROAK**

IKASTARO LUZEAK

- ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA *Getxon!*
- ASTIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA
- JENDARTE KULTUR DINAMIZATZAILEA
- NOLA SUSTATU PARTE-HARTZEA?
- HEZKIDETZAN ADITUA
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ASTIALDIAN
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ETA SEXUALITATEA
- KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN HASTAPENAK

IKASTARO LABURRAK

- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonak?
- Balioetan hezteko jolasak
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Garapenerako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Komunikazioaren oinarriak
- Barreterapia

2013 2014

> Matrikulazio epea irailaren 2tik 30era

Bizkaiko **Urtxintxa Eskola**

Zabalbide 26, 48006 BILBO • T: 94 432 0445

urtxintxaeskola.org

## gaztetxoak &gt; denborapasa

## LUMA aldizkariaren eskutik

Nabarmenduta dauden guneetako ariketak bideratuz, egoki bete itzazu lauki danak, jakinik lerro eta zutabe bakoitzean 1 eta 6 bitarteko zenbakiak ageri direla eta ez dela zenbakirik errepikatzen. Adb.: lauki biko gunean ariketa "7+" bada, honako hauek izango dira laukiak: 1+6, 3+4 edo 2+5 (ordena ez da kontuan hartzen).

12*	1	2/	
	2/		3
2/	7+	3-	
		5+	

5+		3-	
16*		2	1
	2/		
3		2/	

## gaztetxoak &gt; bilatu eta irabazi

*Non egiten da Basartena film laburren emanaldia?*

- Getxon
- Berangon
- Urdulizen

*La Gusana* liburudenda **SARIA**  
 Tellagorri plaza, Algorta  
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: European  
 > Irabazlea: **Aretx Bidaurrezaga Aresti\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

## ez horren gaztetxoak &gt; non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

**SARIA** *Oinutsik*  
 kontsulta podologikoa  
 Zubigane 4, Sopelana  
 Tf. 94 404 74 20  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Galtzagorriak  
 > Irabazlea: **Monika Mena\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



MARIA ANGELES GILEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

## GETXOKO XIX. PAELLA TXAPELKETA, 1979

**Itxas-Argiako** neskak ditugu irudikoak, paellak ateratzen dabiltzala, goizean dantza erakustaldia eskaini eta zapiak saldu ostean. Maria Angeles Gilek akorduan duenez, garai hartan, goizeko ekitaldia eta paella-lehiaketa amaitu ondoren, Itxas-Argiako egoitzara jaisten ziren bazkaltzera, arrastian barriro ere Aixerrorara igotzeko. Gilek dioenez, goiko argazkia egutegi batean agertu zen, eta ziur ez badago ere, orduko Hierro egunkariko kazetari-argazkilari batek egindakoa izan daiteke. ○

**Ezkerretik eskumara:** Miren Bego Madariaga, Maria Angeles Gil, Inmaculada Villalabeitia, Genaro Serrano eta Jaione Arzadun.

**ESTEPAN ALDAMIZ-ETXEBARRIA** > kazetaria

# “Amestu nezake zorientsuago izatea, baina asko eskatzea da”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Bizitzeko poza non dagoen aurkitu nahian dabilen norbait.

**Orain zarena izango ez bazina, zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Arkitektura gustatzen zait, paisajea eraldatu, etxeak eraiki, puskatu...

**Eta zertan ez zenuke jardun gura?**

Banketxe bateko lehiatilan, adibidez: ordenagailuari begira egun osoan eserita egotea ez zait gustatzen.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat?**

Asko, adibidez, Caracasen: Eusko Etxeko ikastolan andereñoak erregelarekin buruan ematen zidanean, ez dakit nora begira nengoelako.

**Barrero egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Ez, orain egingo nituzke beste asko, krisia lagun kostata egingo ditudanak martxa honetan, baina tira...

**Zein da zure ametssetako bat.**

Egia esan, amets asko egiten dut. Agian zorientsuago izatea, baina hori asko eskatzea da.

**Eguna ala gaua? Zergatik?**

Gaua, orduan hasten delako bizia.

**Baduzu ezizenik? Zer dela eta?**

Ez dut inoiz eduki, ez bada batzuetan esaten diren tontakeriak: *Este pan y vino* eta horrelako gauzak.

**Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?**

Krisia amaitu dela eta berriz ere lan bete dagoela.

**Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?**

Aspaldian nahiko formal nabil, egiten ditudan erokeriak txikiak dira.

**Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?**

Serioa dirudien horri, adibidez Urkullu edo Erkorekari, beste aldea ikusteko, nolakoa daukaten jakiteko. ○

**LABURREAN**— Gauetako bakardadea utzi eta argitara urten da Estepan Aldamiz-Etxebarria ETB1eko gautxoria (Caracas, Venezuela, 1956); urtetan *Bakarrik edo...* gaueko programa aurkeztu du eta orain gitxi igaro da goizeko ordutegira: *Egun on*, *Euskadi* saioan ari da Olaia Urriagagaz batera. ETB2n hasi zen saio hori, baina gaztelaniazko lehia gogorregia, antza; horregatik ekarri dute euskarara eta ederto ei doakie, irailetik aurrera ere jarraituko dute eta. Eguzkiaren argia gehiegizkoa izango da gure gautxoriaren begi-ninietarako?



info +:

Behars@rea Bizkaia: [www.beharsarea.net](http://www.beharsarea.net)



Behars@rea Erandio: [www.beharsarea.net/Erandio/](http://www.beharsarea.net/Erandio/)



Behars@rea Leioa: [www.beharsarea.net/Leioa/](http://www.beharsarea.net/Leioa/)



Behars@rea Getxo: [www.beharsarea.net/Getxo/](http://www.beharsarea.net/Getxo/)



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta,  
ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan.  
ArgiHizkiak testu laburren euskarazko  
literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin  
marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura.  
Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien  
hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

# ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

## Erakusketa Erandion

Irailaren 9tik 23ra Josu Murueta kultur etxean

